

Herririk Herri |8|
Durangaldeko Esperientzia
Institutuak 30 diploma banatu ditu

Ekonomia |10|
Akordiora heldu dira Abamotorreko
zuzendaritza eta beharginak asteen



Berbaz |9|
M. Lejarraga: "Ume sahararrak
indartsuago bueltatzen dira etxera"



Hainbat politikari eta herritar bildu zen orain 20 urte lurretako elizpean egin zuten botere eskualdatze ekitaldian. Foto Sol

Desanexioaren urtemuga gogoratuko dute lurretan

> Udalak maiatzaren 25erako antolatu du
desanexioaren 20. urtemugako ekitaldia

> Lehenengo udal kudeaketa taldean
aritutakoak omenduko dituzte

2

Nazioen Arteko Torneoa saskibaloian

KIROLAK• Euskadi, Katalunia, Galizia eta Lituaniako selekzioak Lاندako Kiroldegan lehiatuko dira, asteburuan, Nazioen Arteko III. Torneoan. Euskadik Galiziaren kontra jokatuko du biharko finalaurrekoan. Katalunia da torneoa irabazteko faborito, baina iaz ere halaxe ziren eta gure selekzioak kanporatu zituen. Tabirakoren 50. urteurrena dela-eta jokatuko dute Durangon torneoa.

25

• **Durango**
Aramotz inguruan babeseko 26
etxebizitza zotz egin dituzte 3

• **Berriz**
Etxebizitzak alokatzeko
araudia eguneratu du Udalak 6

• **Abadiño**
Kamineroaren Etxea bota egin
dute "arrakalengatik" 7

• **Otxandio**
Bilboko Orkestra Sinfonikoaren
kontzertua zapatuan 3

SOLOZABAL
autoeskolak

- **TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen duelarik.
- **CAP ikastaroak profesionalentzat**
- **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:
Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO

HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Desanexioaren 20. urteurrenaren inguruko ekitaldiak maiatzaren 25ean

Udalaren lehenengo kudeaketa taldean jardun zuten 13 lagunak omenduko dituzte maiatzaren 25ean

Datorren martitzenerako, maiatzaren 25erako, antolatatu ditu Udalak desanexioaren urteurrenako ekitaldiak. Iñaki Totorikaguena alkateak ekitaldia aurkezteko azaldu duenez, 1990eko urtariletik urtebete geroago hauteskondeak egin ziren arte, Iurretako Udala kudeatu zuten 13 iurretarrei omenaldia egitea da martitzeneko ekitaldiaren helburu nagusia. Horrez gainera, "80ko hamarkadan zehar desanexioaren alde Durangogaz negoziatio lanak

egin zituzten herritarrak ere" gogoratu eta omendu gura ditu, martitzenean, Udalak. Desanexioaren ondorengo lehenengo alkatea izan zen Etxebarria eta bi hamarkadotan zinegotzi izandako herritar guztiak omendu gura dituzte. Guztiak gonbidatu dituzte maiatzaren 25ean Udaletxera gerturatuzera. Ekitaldi "xume eta diskretua" izango ei da: herriaren gertuko historiaren oroimenerako ekitaldia.

Desanexioa burutu zela aurrean bi hamarkada betetzen direla gogoratzeko, maiatzaren 25ean, 19:00etan, egin dute hitzordua, eta herritar guztiak gonbidatu, gainera. Iñaki Totorikaguena alkate jeltzalearen eta Batzar Orokorretako Ana Madariaga lehendakariaren harrera-berbaldiak zabal-

"1980ko hamarkadan desanexioa lortzeko behar egin zutenak omendu gura ditugu"



Iurretak udalerrri izaera berreskaratu izana ospatzeko orain 20 urte egindako ekitaldia. Foto Sol

duko du ekitaldia, eta elizako abesbatzaren emanaldia, Iurretako lehenengo gestorari omenaldia, Mikel Deuna dantza taldearen emanaldia, Gerediaga elkarte Jon Irazabal historialariaren berbaldia eta luntxa antolatu dituzte. Desanexio prozesuari buruzko berbaldi laburra eskainiko du Irazabal historialariak.

Abesbatzaren eta dantza taldearen emanaldiak eta Jon Irazabal historialariaren berbaldia antolatu dituzte

1927tik 1990era arte Durangora anexionatuta egon zen Iurretan, eta gaur egungo alkatea den Iñaki Totorikaguena gogora ekarri duenez, batez ere, 80ko hamarkadan hartu zuen indarra Iurretan udalerrri berezitu bilakatzeko eskerriak: prozesu horretan zeresana izan zuten herritar guztiak gura dituzte gogora ekarri. ■ I.E.

Zazpigarren Okela eta Ardao Eguna antolatu dute maiatzaren 22rako

Arabar-Errioxako upategietatik ekarriko duten ardoa eta bildots pintxoak dastatzeko aukera

Iurretako Udalak Arabar-Errioxako upategien elkartearen laguntzagaz antolatu du Okela eta Ardao Eguna zazpigarren edizioa. Bihar, maiatzaren 22an ospatuko dute eguna. Dozena bat upategitik ekarritako Errioxako ardoa emango dute, 11:00etatik 14:30era, gura duen guztiak dastatu dezan.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, euro bi eta erdiko prezioan salduko duten kopa erosi eta eskaintzen direnetatik gura beste

ardo probatu ahalko dute bertaraten diren guztiak. Edaria laguntzeko, bestalde, burduntzi erako bildots pintxoak ere eskainiko dituzte Iurretan, Okela eta Ardao Eguna ospatzen den biharko zazpigarren aldi honetan. ■ I.E.

Dozena bat upategititik ekarritako Errioxako ardoa emango dute goizean zehar



Orain urtebeteko Okela eta Ardao Eguneako argazkia. J.F.

ATXONDO

Atzeratu egingo dituzte etxebizitza sozialen lanak

Baldintzetan aldaketa batzuk egin dituzte ahalik eta enpresa gehien eskaintzak jaso ahal izateko

Aurten hasi behar dira Arrazola-ko lehenengo Udaletxea zenean alokairuko etxebizitzak atontzeko beharrak. Babeseko lau apartamentuak egokitzeko lanak zer enpresak egingo dituen erabakitzeke prozesua apur bat atzera-

Enpresek atontze-lanak egiteko eskaintzak ekain amaierara arte aurkeztu ahal izango dituzte

tzea erabaki dute aste honetako udalbatzan. Lan horiek esleitzeko epea zabaldua zegoen, baina, David Cobos alkateak azaldu duenez, "enpresa batzuek esan dute arlo batzuetarako gaitasun tekniko altua eskatzen genuela, eta bajatzea pentsatu dugu".

Aldaketa horiek eginda, inguruko enpresa gehiagok bere eskaintzak egin ahalko dituztela pentsatzen dute udal arduradunek, eta erabakitzeke aukera gehiago izango dutela. ■ A.U.

Zine foruma gaur arratsaldean, Atxondoko Lamiak antolatuta

Siempre a tu lado izeneko pelikulen inguruan zine foruma egingo dute gaur Atxondoko Udaleko pleno aretoan. Atxondoko Lamiak elkarteak antolatu du zine foruma, eta 18:30ean izango da.

Siempre a tu lado filma benetan gertatutako istorio baten oinarrituta dago. Richard Gere unibertsitateko irakasle baten papeira egiten du, eta abandonatutako txakur bat aurkitzen du. Txakur horren bizimodua zelakoa izan den ezagutuko du. ■ A.U.

18:30ean hasiko da 'Siempre a tu lado' filmaren zine foruma Udaletxeko pleno aretoan

ELORRIO

Paperontzi berriak Berrio-Otxoa, Errekakale eta Urarka kaleetan

Udalak jakinarazi duenez, Berrio-Otxoa, Urarka eta Errekakale kaleko paperontziak aldatuko dituzte. Kale horietako 12 paperontziak kendu eta berriak ipinitu dituzte. Kentzen dituzten horiek Eleizalden eta errugbi zelaiaren inguruan ipinita aprobetxatuko dituzte, zonalde hartan paperontziak ipintzeko eskarera bat baino gehiago egon delako. 8.000 euroko aurrekontua dute lan horietarako.

San Jose, Kanpazar eta San Lorentzo parkeetako mahai eta erretokiak ere berriztatuko dira

Bestalde, San Jose, Kanpazar eta San Lorentzon dauden parkeetako mahaiak eta erretokiak berriztatuko dituzte. Bederatzi paperontzi berri ere banatuko dituzte hiru parke horietan. 12.000 euroko aurrekontuagaz burutuko dituzte lanak, Amankomunazgoak martxan ipinitako ekimenaren bitartez kontratatutako langileek. ■ J.D.



DURANGO

Hilaren 27ra arte eman daiteke izena 'Uda Topera Bizi' ekimenean

Udalak gaztetxoentzako urtero antolatzen duen Uda Topera Bizi ekimenean izena emateko epea maiatzaren 27an amaituko da. Pinondoko Gazte Informazio Bulegoan apuntatu daiteke, eta baita Udaletxera deituta ere. Jende kopurua mugatua da, eta zozketa bitartez banatuko dituzte lekuak.

Pinondon eman daiteke izena; partaide kopurua mugatua da eta zozketa egingo dute

Aurten ekimen bi prestatu dituzte. Txiki Txokoak —3-5 urte artekoentzako— txanda bi izango ditu: ekainaren 28tik uztailaren 9ra eta uztailaren 12tik uztailaren 23ra. Ordutegia astelehetik barikura da, 09:00etik 12:45era.

Hiri kanpamendurako —6-10 urte— ere Txiki Txokorako dauden txanda berberak daude, eta ordutegia 09:15etik 13:00ak artekoa da. Durangokoentzako 80 euro da eta besteentzat 100 euro; familia ugarietarako hobariak daude. ■ J.D.

Aramotz inguruko 26 babeseko etxebizitza zotz egin dituzte

Guztira, 784 lagun zeuden deituta; etxeak urte bian amaitzea dago aurreikusita

Aramotz auzoan, Eroskiren aurreko parking inguruan, etxebizitzak egitea aurreikusita dago, eta horietako 26 babes ofizialekoak dira. Bizileku horietan zozketatu zituzten, martitzenean, Landako Kiroldegian. Aitziber Irigoras alkatearen berbetan, "atzerapenik ezean, etxebizitzak urte bian prest egotea dago aurreikusita". Beste 26 bizileku alokairu sozialekoak izango direla ere jakinarazi zuen.

Ricardo Crespo EAEko etxebizitza arloko delegatuak bertatik bertara jarraitu zuen zozketa. Etxebizitzetatik bi gutxitu fisikoaren artean zozketatu zituzten; bost zeuden zain. Etxebiden lau urte baino gehiagoko antzinakotasuna dutenen artean 12 bizileku

Beste 26 bizileku alokairu sozialekoak izango direla adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak

ku banatu zituzten (guztira, 308 zeuden deituta); 25-35 urtekoen artean bederatzi zozketatu zituzten (297ren artean); gainerakoek artean, hiru banatu ziren.

25-35 urte bitartekoek atalean bederatzi etxebizitza zozketatu zituzten



Jende asko batu zen zozketa bertatik bertara jarraitzeko (bideoa 'www.anboto.org'-n ikusgai).

Euskaltegiaren kokapena zehazteko eskatu dute

Aralarrek "batzorde bat berehala sortzea" eskatu du Udal Euskaltegiaren kokapena erabakitzeko

Udal Euskaltegiaren kokapenaren gainean Udalak ez duela aurreikuspenik izan salatu du Aralarrek. Horregatik, Udaleko Bulego Teknikoak, euskaltegiko irakasle eta langileek eta alderdi politikoek osatutako batzordea eratzeko eskatu dute. Batzorde hori "hainbat azkarren" eratu dezatela ere eskatu dute, "sortu den arazoari irtenbidea emateko".

Aralarren esanetan, Udal Gobernuak Euskaltegia Azterlanen (Maristak) eraikin zaharrean birkokatzea proposatu du aurten, bide batez, Berritzegunearen (irakasleentzako prestakuntza zerbitzu)

tzua) kokapen arazoa konponduz. Erabaki hori hartzerakoan "eraikina Euskaltegiaren beharrezanetara moldatzen ote den ez zela kontuan hartu pentsatzen dugu eta ez zietela galdetu ez irakasleei, ez Euskaltegiko zuzendaritzari". Izan ere, Euskaltegiko langileak eraikina ikustera joan dira eta "beharrezko baldintzak ez dituela betetzen ondorioztatu dute". ■ J.D.

Euskaltegiaren kokapen berria erabakitzeko "ez zitzaizen bertako langileei kontsultatu"

Sanfaustoen antolaketan parte hartzera deitu du Udalak

Datorren urriaren 9tik 17ra bitartean San Fausto jaiak ospatuko dituzte Durangon. Hori dela eta, Udalak gonbitea luzatu die durangar guztiei Jai Batzordean parte hartu dezaten aurtengo jaien antolaketan.

Bestalde, proposamenen bat edo ekimenen bat aurkeztu gura izanez gero, jaietako egitarauan sartzeko, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar da. jaiak@durango-udala.net posta elektronikora mezu bat bidaltzea da beste aukera bat; proposamenak ekainaren 18a baino lehenago aurkeztu behar dira. Jai Batzordean jasotzen diren proposamen guztiak aztertuko dituzte. ■ J.D.

OTXANDIO

Tangoa oinarri, kontzertua eskainiko du Bilboko Orkestra Sinfonikoak

Ganbara kontzertua eskainiko du BOSeK, bihar arratsaldean, Otxandioko Santa Marina elizan

Zapatuan, 19:45etik aurrera, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren hari taldeko bost kidek kontzertua eskainiko dute Santa Marina elizan. Kontzertuak *Tangoak boskotean* du izena, eta tango ezagunak joko dituzten bertaritzen diren gozagarri.

Besteak beste, *Tango ballet*, *Decarissimo*, *Invierno porteño*, *Adiós Nonino* eta *Libertanto* piezak joko dituzte. Tangoen inguruko ganbera kontzertu hauek Astor Piazzolla (Argentina, 1921-

1992) omentzeko baliatzen dituzte. Adituen ustez, tangoak XX. mendeko bigarren erdian izan zuen musikaririk onenetakoa izan zen.

Aurtengoa BOSeK Otxandio bisitatzen duen hirugarren aldia izango da. BOSeK ganbara kontzertuak eskaintzen ditu herririk herri, eta Otxandiok urtero egiten du zirkuitu horretan sartzeko eskaera. Izan ere, udal ordezkarien esanetan "aurreko urte bietan eskaintako kontzertuetara ere jende dezente joan izan da". ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

"VII. OKELA ETA ARDAO EGUNA" F. J. Askondo
IURRETAN - 2010
Maiatzak 22

11:00 - 14:00
Bildots pintxoak eta Arabako errioxako ardao dastaketa

IURRETA ELIZATEKO UDALA

◻ MALLABIA

UEMA Eguna ospatuko dute ekainaren 12an Mallabian

Aurretik Paul Bilbaok hizkuntza eskubideen inguruko tailerra gidatuko du Plateruenean

Egitarau zabala prestatu dute ekainaren 12rako UEMAko udalek Mallabian. Antolatzaileek jaialdirako *Ein eingou* goiburua aukeratu dute.

Xabier Mendigureni bere ibilbidearen aitortza egingo diote, eguerdiko 12:00etan, frontoian. Ondoren UEMA: hasierako bultzada eta lehen erakundetze amahai-ingurua antolatuko dute. Ordu berean, herriko parkean, herrien arteko Xibajokoak antolatuko dituzte. Bazkariko txartelak Izurtzako, Atxondoko, Otxandio eta Mallabiko Udaletxeetan edo UEMAren bulegoetan erosi daitezke. Bazkalosterako, kantu saioa prestatuko dute. Umeendako Lur Korta ipuin kontalariak saioa eskainiko du. Gainera, Mallabarreneko plazan eta Elizoste

kalean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era, ume eta gaztetxoendako jolasak prestatuko dituzte (puzgarriak, tailerrak, quadak...). Dantzari ere tartea egingo diote, arratsaldeko 18:00etan, Erlaxi taldeagaz. Damu Dot taldeak, bestalde, 23:00etan disko berria aurkeztuko du.

Tailerra

Paul Bilbaok hizkuntza eskubideen inguruko tailerra eskainiko du, ekainaren 9an 19:00etan, Durangoko Plateruenean. ■ J.G.

Antolatzaileek jaialdirako 'Ein eingou' goiburua aukeratu dute



Makina bat lagun batzen da urtero azokan.

Baserritarren erakusleiho den azoka antolatuko dute domekan

Hamabostaldiko egitarauaren barruan, hainbat ekitaldi antolatuko dute asteburuan. Zapatuan futbito txiki (10:00) eta futbito gazte (16:30) txapelketak jokoan izango dira, Mallabiako futbol taldearen eskutik, eskolako frontoian. Jasokunde abesbatzak kontzertua antolatuko du, arratsaldeko 20:00etan, Mendibil eta Orioko abesbatzekin batera, Jasokunde Andra Maria parrokiaren.

Azokak domekan 10:30ean zabalduko ditu atekak, pilotalekuan. Herriko baserritarrek ortuariak eta beste hainbat produktu eroango dituzte. Beste herri batzuetako artisauen postuak ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Orraitio euskara elkarteak taloen postua prestatuko du. Futbol partidua jokatu dute, arratsaldeko 17:00etan, Zaldibarren, Mallabiako eta Bastidak. Biharko Izarrak pilota txapelketa arratsaldeko 19:00etan jokatu dute pilotalekuan. ■ J.G.

EUSKAL ASTEA

Maiatzaren 22tik Ekainaren 20ra
DURANGO 2010

www.durango-udala.net

duran go! goazen!

DURANGO Udala • Ayuntamiento

BFA DFB

Mallabiako Ferri Alkandia Diputazioaren F. on de Biskala

◻ MAÑARIA

Nekazaritza eta Artisautza Azokaren hamabosgarren edizioa domeka honetan

Ekoizleek euren ortu eta sukaldeetako produktuak saltzen jardungo dute, 10:00etatik 14:30era

Hamabosgarren aldia da Nekazaritza eta Artisautza Azoka antolatzen dutena Mañarian. Domeka goizeko 10:00etarako gertu izango dituzte euren produktuak erakutsi eta saltzeko postuak, herriko plazan, nekazariak.

Ortuan landutako barazki eta fruituak zein etxe barruko sukaldeetan prestatutako jaki gozo eta eskuz landutako produktuak erakuriko dituzte ohiturazko bilakatu den Mañariko azokara. Eskualdeko baserrietan ekoiztutako produktuak erostez gainera, burduntzian erretako antxumea dastatze-

ko aukera ere izango da, domekan, Mañarian, eta ahuntz azpi-gorrien erakusketak ere ez du aurreten ere hutsik egingo.

Domekako azoka eguneko giroa argazkietan jaso, Udaletxean edo Liburutegian aurkeztu eta antolatu duten argazki erakusketan parte hartzera animatu dituzte herritarrak Udaletik. ■ I.E.

Azokako giroa argazkietan jaso eta antolatu duten erakusketan parte hartzera animatu dituzte herritarrak



Iazko azokan eguraldiak ez zuen lar lagundu. J.F.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 lteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO HONEK FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAINAREN 30a ARTE DAGO INDARREAN

BERRIZ

Egungo zaborren kudeaketari buruzko hausnarketa Berrizen

Erakusketa eta mahai-ingurua antolatu dituzte

Berriz maite dugulako zaborren kudeaketaren inguruan hausnartzeko erakusketa eta mahai-ingurua antolatu du. Gorka Camara hirigintza zinegotziak dioenez, "helburua jendea informatu eta alternatibak eskaini-

tzea da". Mahai-inguruan "ondorioak atera daitezke, eta interesgarriak badira Hirigintza Sailera eroan". Erakusketa ekainaren 5era arte egongo da Probalekuan; bertan, egungo zaborren kudeaketa eta alternatibak erakusten dituz-

te. Bideo-emanaldiak ere izango dira. Hilaren 27an mahai-ingurua antolatu dute, eta adituak izango dira bertan; Izaskun Txintxurreta Usurbilgo ingurumen teknikaria atez ateko zabor bilketaz arituko da; Eguzkiko Juan Mari Bildarrain erraustegien onura eta kalteen inguruan, eta Francisco Sainz EHNEkoa konpostatzeaz. ■ G.A.



Gaur egungo zabor kudeaketa izango da ikusgai, ekainak 5era arte, Probalekuko erakusketan.

IZURTZA

San Nikolas eliza ingurua atontzeko lanak amaituta

Lanak amaituta, "oso gune atsegina" bilakatu dela elizaren ingurua azpimarratu du Udalak

San Nikolas elizaren ingurua urbanizatu eta orain arte "autoentzako" zegoen lekua "herritarrentzako" berreskuratzeko asmoagaz hasi zituzten, joan zen urte amaieran, beharrak. Hilabeteetako lanen ondoren, jendeak autoa aparkatzeko erabiltzen zuen espazioa "lasai-

Udalaren hasierako proiektuan jasota egon ez arren, Safet Bijelic artistaren eskultura lanak ipini dituzte bertan

egoteko gune atsegina" bilakatu dela uste du Udal Gobernuak. Horrela, hasierako proiektuan jasota egon ez arren, besteak beste, lanek aurrera egin ahala erabaki dute Safet Bijelic eskulturgile durangarraren lanak ere bertan ipintzea. Lehenengoz ipini dute Izurtzan eskultura publiko bat.

Lanak aurreikusitako baino gehiago luzatu diren arren, Udal Gobernuak nabarmendu duenez, "batez ere, elizaren inguruko berdegune-ko landaredia hazten denean" asko irabaziko du elizaren inguruak; "herritarren pentsatuta diseinatutako inguruak". ■ I.E.

GARAI

Lantziegoko dantza taldea bisitan etorriko da ekainaren 12an

25 urte bete dira aurten Garai eta Lantziegoko dantza taldeek hartu-emona hasi zutela. Hori gogoratzeko, joan-etorriko ekimena egitea pentsatu zuten, eta joan zen urteko uztailean izan ziren garaitarrak Arabako herrian. Egun osoko festa antolatu zuten, upategietara bisita eta guzti.

Orain, bueltako hitzordua zehaztu dute: ekainaren 12an etorriko dira Lantziegoko dantzariak Garaira. Egitaraua ixteko dago oraindik, baina, antolatzaileek azaldu dutenez, herria ezagutzeko aukera emango diete bisitariei. Esaterako, aukeren artean dago Momoitioko San Juan ermita ingurura joatea. Ekimena ez dute dantza saiorik egiteko aprobeztatuko; elkarregaz egon eta festa egingo dute. Herrian buelta bat emon ondoren, herri-bazkaria izango dute. Datozen egunetan egongo da bazkarirako izena emateko aukera. ■ M.O.



ABADIÑO

Kamineroaren Etxea esaten zioten eraikina desalojatu eta bota egin zuten martitzenen

Eraikinak "arrakala handiak" zituela eta arriskua zegoela azaldu dute

Kamineroaren Etxea izenagaz ezagutzen zen eraikina zaintzen ziharduen ertzain baten berbatan martitzen goizean jaso genuenez, "eraikinak arrakala handiak zeuzkalako", eta horren arriskuaz jabetuta hartu dute etxea botatzeko erabakia.

Ertzaintza, Udaltzaingoa eta Jose Luis Navarro alkatea egon ziren bertan eraiste-lanak iraun zuten denboran, lanak koordinatzen eta jarraitzen. Arratsaldeko lauretan hasi eta berrogei minuturen buruan amaituta zeukaten langileek eraikinaren eraista.

Errepidera ematen zuen horma botatzeko trafikoa geratu zuten bost bat minutuz, eta etxebizitzan "okupa" bizi izan den familia desalojatu egin zuten horren aurretik Ertzaintzak.

Inguruan egiten dabilzan lanak hasteagaz batera, eta eraikina zegoen egoera ikusita, Aldundiko Herri-lan Sailari eraikina botatzeko edo eraberritu eta erabileraren bat emateko eskaera egin zion joan zen apirillean Navarro alkateak: eraikina zegoenean mantentzea arriskutsua zela uste zuten Gobernuak. ■ J.D./I.E.

Tarte batean trafikoa eten zuten Ertzaintzak, baina 40 minutuan eraitsi zuten

Jose Luis Navarro alkatea ere bertaratu zen eraikinaren eraiste-lanak jarraitzera



'www.anboto.org' helbidean dago ikusgai eraiste-lanen bideoa.

Hainbat belaunalditako dantzarien eguna da bihar

Talde Batuak dantza taldearen 40. urteurrena ospatuko dute maiatzaren 22ko ekitaldiekin

Bigarren asteburua duten Zelaie-tako San Trokaz jaien egitarauan ere jasotako jaia da Talde Batuak dantza taldearen 40. urteurrena ospatzeko antolatuta dutena. Taldeak bizi-bizirik iraun duen denbora horretan taldean dantzari jardun duten belaunaldi ugarietako dantzari taldeak batuko dira maiatzaren 22ko ekitaldian. Guztira, nesken 11 talde eta mutilen 13 talde batuko dira bihar eguerditik aurrerako Zelaie-tako hitzorduan.

Guztira, nesken 11 talde eta mutilen 13 talde elkartuko dira biharko ekitaldietan

Dantzari ohien kalejira eta dantza-saioagaz hasiko dira, 12:30ean, Talde Batuak dantza taldearen urteurrenako ekitaldiak. Gero, 14:30ean Ferialekuan, herribazkaria egingo dute lehenengo, eta 17:30ean leku berean egingo duten erromerian berriro dantza-tzeko aukera izango dute parte-hartzaileek ondoren.

San Trokaz jaien egitarauan jasota dagoen Talde Batuak dantza taldearen urteurrena ospatzen den egunean, bihar baita, baina arratsalde, umeendako jolastokia ipiniko dute, 16:30etik 19:30era, Ferialekuan. Gauera arte hainbat jairako proposamen antolatu dituzte maiatzaren 22rako. ■ I.E.

Zortzi langabe kontratatu dituzte zaintza lanetarako

Talde Independenteko Gobernu Taldeak jakitera eman duenez, asteen hasi dira herriko zortzi lagunok beharrean. Gobernuaren oharrean esaten denez, "diru-sarrerak

berreskuratu ahalko dituzte langabeek horrela, eta gutxitu egingo dira lapurretak". Udalak eta INEMek bultzatutako gizarte-planak jasotzen duen neurrietako bat da atzo



Orain arte egunez egin izan dute agente zibikoek lan.

Jeltzaleen 'Jakin eta egin Abadiño 2012' egitasmoa

Axier Garate bozeroalearen eta Eneko Etxebarria jeltzaleen zerrendaburu berriaren agerraldia

Udalan oposizioan daramatzaten ia lau urteetan, "herria beste ikuspegi batetik ikusteko aukera" izan dutela eta azken hilabeteetan herriaren "etorkizunari begira" hausnarketa egin dutela azpimarratu dute, komunikabideen aurrean, jeltzaleek. Datozen bi urteetarako zer arlotan ikusten duten herrian "hobetu beharra" iradoki dute prentsaurrekoan.

Alderdiaren gaur egungo bozeroalea den Axier Garate eta 2011ko hauteskundeetan EAJren zerrendaburu izango den Eneko Etxebarria izan dira Batzokian kanpaina aurkezten. Etxebarriak azaldu duenez, "hauteskundeak urtebeteren buruan izan arren,

epe luzeagoan garatu beharreko erronkak dira, zortzi arlori dago kienez, zehaztu ditugunak". Euren iritziz, "enplegua, etxebizitza soziala, hezkuntza, osasuna, trafikoa eta aparkalekua, ingurumena, segurtasuna eta euskara" direla "erronka nagusiak" azaldu dute jeltzaleek, eta gai horien inguruko ekintza zehatzak datozen hila-beteetan zehaztuko ei dituzte.

"Herritarrek euren proposamen eta ekarpenak egin ditzaten webgune bat martxan" ipiniko dutela aurreratu du, aurkezpen berean, Eneko Etxebarria zerrendaburu jeltzaleak. ■ I.E.

Herritarrek euren ekarpenak egin ditzaten webgune berria ipiniko dutela laster martxan aurreratu dute jeltzaleek



Durangaldeko Behargintza

Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

ENPRESAREN KUDEAKETA OROKORRA

Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua

HELBURUA: Durangaldean enpresa berriak sortu

EDUKIAK: Merkataritza, Fiskalitatea, Aurrekontuak, Finantzak
Fakturazioa, Kudeaketa eta Administrazioa

IRAUPENA: 2010eko ekainaren 7tik 17ra (28 ordu)

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera 16:00etatik 19:30era

TOKIA: Durangaldeko Behargintza

IZENA EMATEKO EPEA: 2010eko ekainaren 4a arte



Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

DURANGALDEA

Behargintzako areto nagusian egin zuten ekitaldia (bideoa 'www.anboto.org'-n ikusgai).

Esperientzia Institutuko lehenengo diplomadunak

Guztira, 30 lagunek parte hartu dute estreinako urtean; oso ontzat baloratu dute guztiak

Iaz Durangaldeko Esperientzia Institutua sortu zuten Durangaldeko Behargintzak eta Amankomunazgoak eta Durangoko Udako Pertsona Nagusien Sailak elkarlanean. Helburua 55 urtetik gorako pertsonen bizitzako atal eta ataka ugariei aurre egiteko zein arlo pertsonalean garatzeko trebakuntza eskaintzea da. Lehenengo pro-

mozioan 30 lagunek parte hartu dute—21 emakumek eta bederatzigizonek—, eta asteazken honetan jaso zituzten diplomak, Behargintzako areto nagusian egindako ekitaldian.

Marian Larrauri Durangaldeko Amankomunazgoko lehendakariak institutuan parte hartu dutenen jarraikotasuna azpima-

rratu zuten: "Sarritan honelako ekimenek apurka-apurka indarra galzten dute. Gure kasuan, hasi diren guztiak amaitu dute. Horrek interesa sortu duela erakusten du, eta oso pozik gaude".

Esperientzia Institutuan parte hartu dutenek ere berriro errepikatze guraria adierazi dute. Blas Osa, esaterako, Ondarroatik etorri izan da, baina "oso gustura" ibili dela eta datorren urtean "berriro" etorriko dela esan zuten. ■ J.D.

Iaz eta aurten hainbat ikastaro, ekintza eta irteera egin dituzte Esperientzia Institutuan

Beiraren gaikako birziklatzearen inguruko kanpaina Durangaldean

Durangaldeko Amankomunazgoak beiraren gaikako birziklatzearen gaineko kanpaina jarri du martxan, Elorrion, Iurretan eta Abadiñon. Kanpainaren antolatuzaileek azaldu dutenez, helburua "herriotako bizilagunei birziklatzearen alde egindako apustua eskertzea eta lortutako emaitzak mantendu eta hobetzen saiatzea da". Kanpainaren ardatza informazio-dinamizazio puntu bat izango da, iglu berdean zer sartu behar den azpimarratzeko. Elorrion gaur egin dute geldialdia. Iurretan maiatzaren 22an Ardo Azokan egongo dira, eta Traña-Matienan 10:30etik 13:30era datorren eguazteneko azokan. ■ J.G.

Kanpainaren ardatza informazio-dinamizazio puntu bat izango da

ZALDIBAR

Inauguratu osteko lehen ekitaldia du Liburutegiak



Hainbat lagun ezagun izan ziren inaugurazioan.

Joan zen barikuan, Liburutegiaren inaugurazioan, Josune Ariztondo Bizkaiko kultura diputatuak, Balendin Lasuen liburutegi zaharreko bultzatzaileak eta Gerediaga elkarte kide izandakoak, Durangoko Pilar Rios eta Maria Jose Balier zinegotziek, Zaldibar-ko zinegotziek, eskolako haur eta gurasoek eta herritarrek parte hartu zuten ekitaldian. Ekitaldia libu-

rutegi zaharrean hasi zen, alkatearen eskutik, eta berriari bukatu.

Sortaldera bizikletan

Liburutegi berriko lehen ekitaldia diaporama emanaldia izango da, bikote batek hiru urte, hiru hilabete eta hiru egunean munduan zehar bizikletan egindako bidaiaren esperientzia kontatuko dute, maiatzaren 27an, 18:30ean. ■ G.A.

DURANGALDEA

Mendizale bat hilda topatu zuten martitzenean Mugarran

Hildakoa 68 urteko lekeitiarra da. Astelehenean irten zen etxetik, eta martitzen arratsaldean artzain batek aurkitu zuen gorpu; helikopteroz atera behar izan zuten. Ertzaintzako brigada mugikorrek erreskate taldeak, Durangoko Ertzain Etxeko agenteek eta senideek osatu zuten bilaketa taldea.

Bestalde, domekan Durangon bizi zen (ordiziarra zen) mendizale bat hil zen Europako Mendietan. Etxera itzultzen ez zela-eta, Asturiasko suhiltzaile taldea eta Guardia Zibila bilaketa lanetan hasi ziren. Vegarredondako guardak gidatuta, astelehen goizean aurkitu zuten gorpu.

Okintzari eta pintura apainketari buruzko ikastaroak

Durangaldeko Behargintzak eta Hobetuzek doako bi ikastaro eskaintzen dituzte. Alde batetik, ogiak eta pastelgintza-produktuak egiteko ikastaroa; bertan ogia egiteko moduak erakutsiko dituzte, eta alde aurretik produktuak prestatzen ere ikasiko dute. Gainera, betegarri gaziak egiteko sukaldaritza eta txarkuteriako oinarriko teknikak erakutsiko dituzte. Maiatzaren 24tik ekainaren 6ra, asteleheneetik eguenera, arratsaldean.

Bestetik, pintura apainketa-teknikak ikasteko ikastaroan apainketa akaberen teknikak modu autonomoan egiten irakatsiko dute; besteak beste, estukoak, patinak, lausodurak... maiatzaren 24tik ekainaren bira garatuko da.

DURANGO

Aquabike ikastaroa hasiko dute, maiatzaren 24tik aurrera



Durangoko igerileku berrietan ikastaro berri bati ekingo diote maiatzaren 24an: aquabike ikastaroari, hain zuzen ere. Eskolak honako egunetan emango dituzte: asteazkenetan, 19:15ean; astearte eta ostegunetan, 10:15ean, 14:00etan eta 20:45ean; eta barikuetan, 10:15ean. Izen ematea www.durangokiolak.net helbidean egin daiteke.

Bestalde, aquagyma praktikatu gura duenarentzako ordu-tegi berriak prestatu dituzte: astelehenean eta asteazkenetan 11:15ean (55 urtetik gorakoentzako da) eta 14:00etan (15 urtetik gorakoei zuzenduta dago).

Salburuara irteera ekainean

Durangoko Udalak Salburuara (Gasteiz) irteera antolatu du ekainaren 11rako. 09:00etan irtengo dute Landakoko autobus geltokitik eta ekimena doakoa da. Ibilbideak zortzi kilometro dauka eta ordu biko osatu daiteke. Salburua urmaez beteriko hezegunea da. Ibilbidea Salburuara sartzeko Arkautetik dagoen sarreran hasiko dute. Hariztia zeharkatuz, hezeguneko fauna ezagutuko dute bisitariak.

Ekainekoa antolatu duten bigarren ibilaldia izango da. Gaur izan da lehenengoa. 09:00etan, Gorlizko faroko zortzi kilometroko ibilbidea egitera irten dira.



anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

“Ez nituzke Tinduferako bidaiak bestelako oporrenetatik aldatuko”

Monika Lejarraga ume sahararrak etxean hartzen hasi zela urteak dira. Hartu-eman estua egin du Saharagaz

Hainbat ume saharar etortzen da gure eskualdera azken urteotan ‘Oporrak Bakean’ ekimenaren bitartez. Dagoeneko hasita dago urte honetan umeak etxean hartzeko izena emateko epea. **Monika Lejarragaren etxera ere etorriko da ume bat, azken hamasei urteetan legez.**

Zelan gogoratzen duzu programan parte hartu zenuen lehenengo urtea?


Lehenengo mutikoa oso denbora gutxian eduki genuen etxean. Urte hartan hegazkin konpainiekin arazoak egon ziren, eta umeek ezin izan zuten Berrizera etorri. Plentzian aterpetxe baten ume batzuk zeudela esan ziguten, eta ea bertako bat hartuko genuen. Abuztuko azken hamabostaldian egon zen gugaz. Uda hartan baino ez zen etorri mutikoa, baina oso hartu-eman estua daukat oraindik beregaz eta bere familia-gaz. Hara joaten naizenean bisita egiten diet, familia osoa ezagutzen dut eta telefonoz hilean behin egiten dugu berba. Ordutik lau ume hartu ditugu etxean, eta lauren familiekin daukagu hartu-eman.

Tinduferra behin baino gehiagotan joan zara. Zelako esperientzia izan da?

Lehenengo urtean joan nintzen lehenengoz. Etxean izan genuen mutikoa bakarrik ezagutzen nuen, baina falmilia osoa izan nuen gainean, ni zaintzen. Lehenengo bide-errez hara joaten zarenean ez zara ezertaz enteratzen. Ez dizu denborarik ematen bertan zelan dauden asimilatzeke. Bigarren aldian, gutxi gorabehera jabetzen zara, eta hortik aurrera hartu-emanak egiten dituzu. Aurtengo Aste Santuan ezin izan dut joan, eta deitu zidatenean mundu guztia nitaz galdezka zebilela esan zidaten. Tindufek asko engantxatu nau. Denei ez zaie berdin gertatzen, oso esperientzia gogorra delako. Batzuek ez dute hango kulturagaz eta egoeragaz konektatzen, eta ez dira bueltatzen. Edo hori pasatzen zaizu edo engantxatu egiten zara. Ni urtero joaten naiz, eta urte askotan abenduan eta Aste Santuan ere bai.

Esan duzu bigarren biderrez joan zinenen hasi zirela hango egoeraz jabetzen. Zer ikusi zenuen?

Azkenean zuk ezagutzen duzun familiara zoaz, eurekin bizi zara eta gutxi gorabehera euren bizimodua egiten duzu. Han gauza material asko falta zaizkie. Gehien inpaktatzen duena ur falta da. Arazo asko ekartzen ditu; garbitasun aldetik, batez ere. Ura badaukate, baina oso



“Lau ume izan ditugu etxean, eta lauren familiekin jarraitzen dut hartu-emanetan”

neurtuta. Kanpamenduetatik kanpo daude putzu batzuk eta zisterna batzuetan ekartzen dute ura. Ur hori denetarako da, baina guk ezin dugu ur horretatik edan; gaixotu egingo ginateke. Guretzako oinarritzkoak diren gauzak falta zaizkie. Han bizitzea oso gogorra da. Egun guztiak berdin-berdinak dira. Ez daukate ezer egiteko; eskoletan eta udal-txeetan egoten da mugimendua, baina besteak jaimetan egoten dira,

“Kanpamenduetan lehen baino itxaropen gutxiago daukate Saharara bueltatzeko”

denborapasa. Hori oso gogorra da. Baina, bestalde, badaukate guk ez daukagun gauzak. Oso hartu-eman estuak egiten dituzu: eurentzat euren familiakoa zara, eta daukaten apurra zuretzat da. Azkenean faltan botatzen dituzun gauzak beste era batera konpentsatzen dira. Eta merezi du. Nik ez daukat dudarik; ez nuke aldatuko kanpamenduetarako bidaia bat oporretan beste leku batera joateko bidaia bategatik.

Monika Lejarraga •

- Berriztarra da
- Hamasei urte daramatza ume sahararrak etxean hartzen

Zelako hobekuntzak ikusten dituzu hona etortzen diren umeengan?

Hasieran etortzen direnean ez dute hizkuntza ulertzen, eta erraz ikasten duten arren, egokitzeke egunak behar izaten dira. Euren kultura oso desberdina da, eta umea familiara eta familia umera egokitu behar dira. Baina gero merezi du. Osasun-azterketa egiten dute hemen, eta arazoren bat badaukate espezialistarengana eramaten ditugu. Tindufen jan jaten dute, baina ez dira ondo elikatzen. Hori asko igartzen da. Ez diot hemen egoten diren bi hiletan asko loditzen direnik, baina gorputza aldatu egiten zaie. Indar gehiago hartzen dute. Abenduan hara bidaiatzen dudanean, erraza egiten da hona etorri diren umeak eta ez direnak egon desberdintzea. Beste indar bategaz, beste aurpegi bategaz, ikusten ditut.

Zelan ikusten duzu Mendebaldeko Sahararako gatazka?

Nire ilusiorik handiena egunen batean Sahara libre batera joan ahal izatea da, baina oso konplikatu da. Egia da hasierako bidaietatik hona kanpamenduak asko aldatu direla. Lehen jaima gehiago zeuden, eta eraikuntza gutxiago; horretan eboluzionatu egin dute. Baina borroka nahia galtzen dabilta. Lehen esperantza gehiago zeukaten Saharara bueltatzeko. Kanpamenduetako giro hori galtzen dabil. Egia da kanpamenduetan bizi diren asko bertan jaiotakoak direla. 35 urte daroztate kanpamenduetan, eta gazteenek ez dute ezagutzen beste egoerarik. Gatazka dagoela denek dakite, umeek eskoletan ere ikasten dutelako, baina ez dute ezagutu errealitatea. Gu goazenean ahalegintzen gara aldarrikapen jaiak egiten eta animatzen, baina eurak itxaropena galtzen dabilta. Borroka gogo hori galtzen dabilta. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Abamotor Energia Abadiño-ko enpresako beharginak eta zuzendaritza eguazten iluntzean akordio batera heldu eta abuztura arte eguenero egin behar zuten greba bertan behera uztea erabaki zuten beharginek asanbladan. CCOO sindikatuko ordezkariak azaldu duenez, "enpresak mailegu bat eskatu du, eta abuztuan jasoko duenez ordu-rarte ordainketa zatikatuta egingo du; denoi berdin". Aurrerapen moduan 500 euro emango die enpresak behargineri, eta falta dena hurrengo hilean. Sindikatuak azaldu duenez, "ordainketa momentuan nahiko genituzke, baina pozteko moduko erabakia da, enpresak orain arteko burugogorkeria alde batera utzi duelako" eta enpresaren jarrerari "aurrera pausua" izan dela adierazi du CCOO.

Beharginak greba egiten joan zen eguenean hasi ziren, CCOOek azaldu zuenez, "enpresa urtebetean zebilelako soldata berandu ordaintzen, eta orain bi hiletik hona soldata ez ordaintzen". Aste honetan izandako bi batzarretan egoera konpondu dute. ■ G.A.

Abamotorko beharginek eta enpresak akordioa lortu dute

"Ordainketa eguneratzea" eskatzen zioten Abamotor Energiako beharginek enpresari



Abamotor Energia enpresan motorrak, motobonbak eta elektrogenoak egiten dituzte.

>ABADIÑO

Greba arlo publikoan, murrizketei erantzuteko

ELA, LAB eta STEE-EILASEk maiatzaren 25ean egingo dute greba eskubide sozialak babesteko helburuagaz

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek maiatzaren 25ean greba egingo dute arlo publikoan, eskubide sozialak babestu eta Espainiako Gobernuak plazaratutako neurriei erantzuteko.

Sindikatuak adierazi dutenez, "arlo publikoko behargineri eragiten dieten murrizketaz gainera,

"Gakoa politika fiskala aldatzea da, eta ez gastua nondik murriztu"

neurrien norantzak gogor erasotzen dute herritarrengan". Sindikatuek diotenez, "ez da horrenbeste murrizketaren zenbatekoa bera, ezpada zatezabaltzen dela defizitaren arazoaren konponbide moduan hartzeko soldaten eta prestazio sozialen jaitsiera, pentsioak izoztea... Neurri hauek laster etorriko diren beste batzuen zati dira". Gakoa politika fiskala aldatzea dela diote sindikatuek, eta ez gastua nondik murriztu.

CCOOk eta UGTk ekainaren 8an egingo dute greba. ■ G.A.

Anbulategiak itxiko dituzte asteburuetan

Abadiñoako alkateak dio Osakidetzak ez diela Udalei beste proposamen bat aurkezteko aukerarik eman

Osakidetzak asteburu eta jaiegunetan 103 anbulategitik 48 iztea planteatu du dirua aurrezteko neurri moduan, eta erabaki horrek eskualdean ere eragina izango du; izan ere, ekainak 19tik aurrera, Abadiñoako, Berrizko eta Elorrioko anbulategiak itxiko dituzte asteburu eta jai egunetan.

Hala ere, Osakidetzak kontsultez arduratzeko errefortzua ipiniko du zenbait gunetan, arretajarrailua eskainiz. Beraz, berriztarrek, elorriarrek eta abadiñarrek hurren duten gunehorietara jo

beharko dute. Durango eta Zornotzan arreta-gune jarraituak zapatu arratsalde, domeka eta jaiegunetan egongo dira zabalik. Bestalde, etxeko arretak berdin jarraituko du.

Erreforma horiekin urtean 300.000 euro aurreztuko dute.

Jose Luis Navarro, Abadiñoako alkateak deitoratu egin du Osakidetzak hartu duen erabakia, udalei ez dielako "beste alternatiba bat proposatzeko aukerarik eman eta aurretik abisatu gabe" hartu dutelako erabakia. ■ G.A.

■kolaborazioa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Bankuetan dagoen dirua hartu

Burokrata kapitalistak eta beraien esanetara dauden medioetako gatibuak manipulatzeko asko arduratu dira azken aldiotan. Interes espekulatiboak dituzten banku ahaltsuei "finantza merkatu internazionalak" deitzen diote; "subprime hipotekak" eta ondorioz sortutako finantza krisia ezkutatu zuten rating agentziei bozgorailua oparitzen diote zera azaltzeko: "Zu langile, pentsiodun edo gizaseme soil zaren heinean, dirua kenduko dizugu guri ordaintzen diguten banku ahaltsuek gehiago irabazten jarrai dezaten". Erabilitako hitzak ez dira aurrekoak; egin nahi dutena bai. Soldata beharpenak, pentsioak izoztu, haurrak edukitzeagatik zegoziguna kendu, dependentzia arloan zerbait bazegoen mugatu, lan eta pentsioen erreformak, negozioazio kolektiboak Madrilen zentralizatu langileen soldata eta baldintzak merkatzeko... Eta Santanderreko kontseilariak 80 milioi euroko pentsioagaz jubilatu da. Aipatzeko azken manipulazio larriena hurrengoa da: "Herriaren gobernu edo gobernariak". Papandreu, ZP, Lopez, Sanz, ahaldu nagusiak, Europako gobernariak orokorrean, ez dira ezer herriarena; bankuen politiken exekutatuak besterik ez. Inoiz baino zentzu gehiago hartzen du aurreko egunetan grekoek euren parlamentua inbaditzeko ahalegina egin zutenekoa. Herrien borondatea eta subiranotasuna lapurtuta dago. Edonori lapurtutako badigute, logikoena lapurtutakoa berreskuratzea da. Gaur egungo egoera ulertzea erreza da, zailagoa da irtenbideak bilatzea. Euskal Herriko gehiengo sindikalak aurrera eramango duen maiatzaren 25eko sektore publikoko greba eta ekainaren 12ko Bilboko manifestaldia kontestu honetan sartzen dira. Ez da gobernuen berritza ere "elkarrizketa soziala" berreskuratzea, ez: grebaren funtsa gobernuak, "rating agentziek", patronalak eta bankuek lapurretari ez egitean datza. Estatua diru gabe geratu da aberatsei eta patronalari zergak barkatuta eta bankuak salbatzeko erabilitako dirua dela-eta, eta ondorioa da herritarro subiranotasuna eta dirua kendu digutela. Heldu beharko da, arinago edo geroago, lapurtu diguten aberastuna berreskuratzea momentua; hots, bankuetan (eta paradisu fiskal) dagoen dirua hartzeko!

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

gremioen koordinazioa
urtiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**MOMOTXO
TABERNA**
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO
Tel.: 94 681 50 17

KULTURA[>]



Argazkia: Ana Domínguez

ANTZERKIA > EMANALDIA

'Akaziaren jokoa', dantza garaikidea eta antzerkia

Abstracteresfera elkarte arabarrak ekarri zuen, joan zen zapatuan, *Akaziaren jokoa* antzezlana Abadiño-ko Errota kultur etxeko oholtzara. Herritarrok malariagaixotasunari buruz kontzientziazteko helburuagaz, Medicusmundi gobernuz kanpoko erakundeak martxan ipini eta Abadiño-ko Udalak, Anboto Azpiko Damak emakume elkarteak eta herriko etorkinen taldeak lagundutako *Stop Malaria Now* kanpainaren barruko ekitaldia izan zen emanaldia.

Antzerkia eta dantza garaikidea uztartzen dituen lana da *Akaziaren jokoa*. Protagonistak oholtza gainean bizi duen bidaiaren bitartez, ikusleak Afrikara eta hango bizimodura gerturatzen ditu

antzezlana. Afrikako inimizio, gorteiatze eta heriotza errituetan egiten dituzten dantza afrikarrak eta mugimendu horiek gidatzen dituzten erritmoak baliatzen dituzte. Bereziki ikusle gazteari zuzenduriko antzezlana da zapatuan Errotan ikusgai izan genuena, baina herritar guztiei zuzenduriko guradiote ikuskizunagaz luzatzen duten gogoetarako gaia.

Argazki erakusketa

Zapatuko antzerki emanaldiaz gainera, malariari buruzko berbaldea eta argazki erakusketa ere ekarri ditu ekimenak Abadiño-ko Errota kultur etxera: maiatzaren 22ra arte ikusgai dago Txelu Angoitia-
ren argazkien *Malaria, viaje a Kinshasa* erakusketa. ■ I.E.

Erritu afrikarretako erritmo eta dantzetan oinarritutako ikuskizuna Errotan

12 Euskal Astea aurkeztu dute

Datozen asteetan Durangoko kaleetara hainbat kultur eta kirol ekimen ekarriko dituen Euskal Astea aurkeztu zuten astelehenean Durangoko Udaletxean.



13

'Las Alba'-ko antzezleekin

García Lorca-
ren testuan oinarrituta, Barakaldoko Antzerki Eskolak egin duen 'Las Alba' obran ikusiko ditugun eskualdeko antzezle gazte biek egon gara.

PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA

Durangoko Euskal Astearen hamairugarren edizioa prest

Maiatzaren 22tik ekainaren 20ra arte antolatu dituzte aurten ekitaldiak



Euskal Astearen antolatzaileak, Durangoko Udaletxean.

Herriko dozena bat kirol eta kultur elkarte batu ziren atzo Durangoko Udaletxean, maiatzaren 22tik ekainaren 20ra arte gustu eta adin guztietako kultur eta kirol proposamenak ekarriko dituen Euskal Astearen aurkezpena.

Udaletxeko mahaiaren bueltan Mari Jose Balier zinegotzia eta, haren inguruan, Euskal Astearen antolakuntza jardun dutenetatik dozena bat elkarren ordezkariak batu ziren. Iazkoa baino %25 txikiagoa den aurrekontua izanik, Euskal Astea egiten jarraitzea elkarrean ekimenari esker dela nabarmendu zuen zinegotziak.

Euskal kulturaren adierazpide guztiei "ahalik eta erakusleho zabalena eskaintzea" dela Euskal

Ekainaren 20an du
Kriskitinek bost urterik
behingo hitzordua

Herriko 20 kultur eta
kirol elkartek jardun
dute antolakuntzan

Balier udal ordezkaria
eta elkarteetako kideek
aurkeztu zuten astea

Astearen funtsa azpimarratu zuten hamairugarren edizioaren aurkezpen ekitaldian. Dagoeneko tradizio ere bilakatutako ekitaldiak izango ditugu datozen asteetan Durangoko kale eta aretoetan: arte eszenikoak, kirolak, pintura, kontzertuak, folklorea... izango ditugu aukera-aukeran.

Maiatzaren 22an, 19:00etan, Kurutzia ikastolako antzerki taldearen *Berrinautak kalean zehar* antzezlanagaz hasiko da Euskal Astea, eta ekainaren 20ko azken ekitaldia Kriskitin dantza taldeak antolatu duen *Antzinako erako eztegua* izango da. Tartean, *Babiloniako loreak* antzezlan, umeentzako jolas tradizionalak eta abar izango dira Euskal Astearen.

Antzinako erako eztegua

Bost urterik behin antolatzen du *Antzinako erako eztegua* Kriskitin dantza taldeak, eta, egin duten lau aldietan moduan, aurten ere eurgaz parte hartzera gonbidatu dituzte gura duten herritar guztiak. Hain zuzen atzo Merkatu plazan egin zuten parte hartu gura dutenei ekainaren 20ko ekimenei, jantziei eta abarri buruzko informazioa emateko deialdia. ■ I.E.



Ekainaren 20an egingo du 'Antzinako ezkontza' Kriskitinek.

MUSIKA > ESKAINTZA

Udaleku Musikaletan izena emateko epea zabaldu dute Bartolome Ertzillan

Ekainaren 11ra arte dago izena emateko aukera: eskaria egiteko orria musika eskolaren www.durangomusika.net webgunetik jaitsi daiteke

Ekainaren 23tik uztailearen 5era arte izango da, beste urte batez, umei "musikaren mundua erakustea" helburu duen Udaleku Musikaletan Durangoko Bartolome Ertzillan musika eskolan. Bertan parte hartu ahal izateko, Montevideo kaleko musika eskolan bertan eman beharko da izena, ekainaren 11 baino lehenago.

Adinaren arabera sailkatutako bi taldetan jardungo dute ize-

Adinaren arabera
eratuko dituzten talde
bitan jardungo dute

na ematen duten umeek; 4 eta 6 urte artekoek talde batean, eta 7 eta 12 artekoek beste talde batean.

Lau orduko saioak dira Bartolome Ertzillan umeen udako oporren hasierarako proposatzen dituztenak: musikagaz, dantzagaz, antzerkiagaz eta sormenagaz hartu-emanetan jardungo dute irakasleen laguntzagaz umeek.

Musika ikastea euren aisialdirako aukera moduan ikusi dezatela umeek dute antolakuntzaileek helburu, eta horretarako apropos sortutako metodologiagaz jardungo dute. Ohiko matrikularen prezioa 125 eurokoa dela jakinarazi du musika eskolak. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia
Euskaltzaina

Trenbide berria martxan noizko?

Egunkari batean bakarrik irakurri ahal izan nuen albistea, hots, Jaur-laritzako Garraio sailburuak erantzun ziola Dani Maeztu Aralarreko parlamentariak egindako zenbait galderari. Itauok Durangoko uria lurpetik igaroko duen trenbide berriaren lanen egoeraz ziren. Ondorioz, euskal herritargoak hurbileko arazoez distrahituta jarraituko du.

Arazaari helduta, Arriola jaunaren erantzunek zenbait kontraesan dituztela uste dut. Lebario-Gerediagan trenak gordetzeko azpiegitura eraikitzeke lanek atzerapenik izan duten galdetu dionean herri hautetsiak, kontseilariaren erantzun laburra hauxe izan da: "Ez, ez dute atzerapenik izan". Ez du sinesgarritasunik, zeren eta parlamentariari berari, iazko ekainean erantzundakoan, "Traña-Lebario tartea bukatzeko 13 hilabeteko epea" zutela zioen; beraz, hemendik bi hilabete-ra. Trañarra naizenetik ingurua ondo ezagutzen dut, baserri-etxearen albotik pasatzen delako interesez jarraitu ere. Oraindik Zalduerreka tren zubitik harantz trenbide bikoizketa egiteko dago, eta Donostiako N-634 errepide azpiko tunel txotxorra ere hasteko.

Euba-lurretako (Orozketako) trenbidearen bikoizketa lanak datozen urteko uztailean amaitzeko epea ei dute. Garai beretsuan bukatuko omen dira lurperatze-lanak eta geltoki berriaren eraikuntza. Horrela, datorren urteko Sanfaustoetan trenbide berriatik ibili ahal izango dira ET Sareko trenok Eubatik Trañaraino; tartean, uritik. Durangar, iurretar, abadiñar trenzaleok pozik hartuko genuke. Besterik da arkitetu irakiarrak diseinatutako ETSren egoitza nagusiaren finantziagarritasuna atzeratzea, horren aurrekonturik ez baita onartu dagokion lekuan; egoitza parlamentarioan, alegia. Baina horrek ez luke oztopatu behar trenbide berria, datorren urtean, bederen, martxan jartzea.

Honetaz zer diote hiru alkate eta gainerako herri-hautetsiek, udal-letxeetako gobernatzailerik nahiz oposiziokoek? Zer exijitu diote Lakuan gobernatzuten dagoen hemengo zinegotziek Garraio sailburuari? Horretan datza, ene ustez, arazoei aurre egiteko joko-zelai politikoa.

DISEINUA > LEHIAKETA

Durangoko Liburu eta Disko Azokaren kartela aukeratzeko lehiaketa

Uztailaren 15era arte dago lanak aurkezteko aukera; 1.300 euroko saria jasoko du irabazleak

Asteon hasita uztailearen 15era artekoa da 2010eko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragarriko duen kartela hautatzeko Gerediaga elkarteak deitu duen lehiaketan parte hartzeko epea. Epai-mahaiak hautatzen duen lanaren egileak 1.300 euro jasoko ditu.

Gerediaga elkartearen egoitzan aurkeztu daitezke, uztailearen 15era arte, lanak, Durangoko Larrasoloeta kaleko 3. zenbakian. "Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. 2010eko abenduaren 4tik 8ra" lema agertu beharko dute aurkeztu diren proposamenek, eta 70 x 50 zentimetroko neurria izan beharko dute.

Orain hiru urte egin zuen Gerediaga elkarteak Durangoko Azoka iragarriko duen kartela hautatzeko lehenengo lehiaketa: ordura arte diseinatzaile edo argazkilari bati enkargua egiten zion Azokaren elkarte antolatzaileak. Hirugarren urtea da, beraz, gura duten sortzaile guztiei parte hartzeko deia egiten dietena.

Diseinu munduan diharduen jendearentzako erreferentzia bilakatu da Durangoko Liburu eta Disko Azokarako kartel lehiaketa. Gerediaga elkarteak orain arte jaso dituen kartel proposamen gehienak (50 baino gehiago jaso zituzten iaz) Euskal Herriko sortzaileek bidalitakoak izan arren, urtetik urtera zabalagoa da Azokarako kartel proposamenak aurkeztu dituztenen kopurua. ■ I.E.

Larrasoloeta kaleko
Gerediagaren egoitzan
jasoko dituzte lanak

Hirugarren urtea da
kartela lehiaketa bidez
hautatuko dutena

ANTZERKIGINTZA > ELKARRIZKETA

Zelan heldu zaizue 'Las Alba' obran parte hartzeko aukera?
Axier: Eskolako lana da berez; laugarren urtea dugula-eta, irakasle baten proposamenez jaso genuen. Ikasturte hasieran proposatu zigun proiektua.

Joana: Lau urtez gure interpretazio irakasle izan dena ardurtzen da ikasketetako azken proiektu modura obrak zuzentzeaz. Klasikoak aukeratzen ditu normalean, eta aspaldi zeukan buruan *La Casa de Bernarda Albar*en bertsio bat egitea. Eta obrarako aukeratu gintuen. Ikasturteko programa, hainbeste eskola barik, obra honen sormenean zentratuko zela esan zigun.

“Antzerki eskolako laugarren urteko amaiera proiektua da antzezlan hau”

Etazelakoa da Lorcaren testuaren gaineko zuen moldaketa?

Joana: Interpretazioa eta dantza uztartzen ditu. Gure dantza irakasleagaz hasi ginen lehenengo gorputzaren mugimenduak lantzen: Bernarda Albarren alabek pairatzen duten sumisioagaz lotura daukaten mugimenduak.

Zenbat jende zarete 'Las Alba' egiten duzuenak?

Joana: Bederatzi aktore gara, eta horri dagokionez ere moldatu egin behar izan dugu obra, klasikoan agertzen diren pertsonaiak gehiago direlako: bost alaba, Bernarda Alba ama, Maria Josefa amama, Poncia eta neska, eta auzotarrak.

Horrelako testu batean oinarrituta lan egitea zelakoa da?

Axier: Oso poetikoa da testua, eta errimari erabiltzen ez duen arren, nabaria da Lorca izatez poeta dela: obra oso poetikoa da. Metafora asko pilatzen ditu, eta oso berezi egiten du horrek. Joana: Azpi-esanahi asko gordezten dituen testua da Lorca idatzi zuena. Gaztelera klasiko erabiltzen du, eta azpitik beti agerikoaz aparteko beste esangurak gordetzen dituena. Testua gaztelera izatea ere berezia izan da euskaldunontzat: ondo ahozkatzeko, zuzenketa asko egin dizkigu zuzendariak.



Durangaldeko antzezleak Lorcaren testutik sortutako lana gorpuzten

Institutu garaian Karrika taldean eta lau urteotan Barakaldoko Antzerki Eskolan “gaixotasun eta terapia” dutena egiten jardun dute **Joana Ocaña** eta **Axier Garciak**: antzerkia. Karrikan sormena taldekideekin konpartitzen ikasi dute, eta teknikak eskolan. Antzerki ikasketen karrera amaierako proiektua duten ‘**Las Alba**’ erakutsiko dute maiatzaren 27an San Agustinen, eta 28an Arriolan

Bakoitzak zer pertsonaia egiten duzue 'Las Alba' honetan?

Axier: Maria Josefa amamarena egiten dut nik, zoramaren figura den amamarena. Dantzari moduan, bestalde, Pepe “El Romano”-ren papera ere egiten dut. Agerpen laburreko pertsonaiak egiten ditut, baina, era berean oso konpletoak ere badirenak. Oso pertsonaia polita da Maria Josefarena, eta maitasun berezia hartu diot, egia esan. Kontzientzia eta sexuaren errepresioaren sinbolo bat da Maria Josefa: giltzapetuta dago. Pepe “El Romano”, aldiz, sexu maskulinoaren agerpena da. Joana: Obrako emakumeek eskuratu gura luketena da Pepe “El Romano”. Bestalde, Ponciarena

egiten dut nik: antzezle bik egiten dugu pertsonaia bera; bikoia egiten dugu. Berriz izan da hori niretzat, eta elkarlan oso estuan jardun dugu lankideak eta biok. Pertsonaiaren sormen-prozesua oso interesgarria izan da.

Zelako esperientzia izan da obra ikusleei erakustea?

Joana: Gogoia geneukan, erakusteko momentua noiz ailegatu: zorrotz egin dugu behar, eta gogorra izan da prozesua. Estreinaldia, Barakaldo Antzokian egin genuen emanaldi bitan. Ohikoa denez, lehenengo emanaldian urduriago geunden, eta bigarrean gehiago gozatu jardun ahal izan genuen.

“Zorrotz egin dugu behar, eta emaitza erakusteko gogo handia daukagu”


Iparrerago ekarri dute obra originala, Laboaren ‘Baga, biga, higa’ oinarri hartuta

Axier: Biborock aretoko emanaldirako bertsio “zirkular” bat egin dugu: eszenatokitik barik jesarlekuetatik antzeztuta; ikusleengandik gertuagotik. Antzezteko era honetan jendea tentsio handiagoan dago, eta emozioak ere biziagoak izaten dira...

Joana: Bai, gordinagoak. Gusturago jardun dut bertsio horretan. Testua ere baten bati begietara begiratzen esan dezakezu...

San Agustinen egingo duzuen moldaketa zelakoa da?

Andaluzian barik, iparrerago dago kokatuta obra, eta Laboaren *Baga, biga, higa* kantak eta eszenografia xume baina bereziak garrantzia handia dute. ■ I.E.




San Mames zelaian!


Zozketan parte hartzeko sar zaitez:

www.anboto.org
webgunean

Lor itzazu dohainik AC/DC ikusteko sarrera bi Rock Izar Eskola eta Anbotoren eskutik



Alluitz, 3 behea Durango
Tel.: 94 603 27 50
www.rockizarra.com



Zozketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 27a izango da. Irabazlearen izena, 28an, eguerdiko 12:30ean jakinaraziko da webgunean eta anboto irratian

HISTORIA > BERBALDIK

Historia Jardunaldien hamar urteetako ekarpenak bilduz

'Durango, 800 urte historian' liburua eta aurtengo Historia Jardunaldiak aurkeztu dituzte

Iaz egin zuten Arte eta Historia Museoko Historia Jardunaldien hamargarrena, eta berbaldien bigarren hamarkadagaz batera aurkeztu dute, atzo, Museoan izandako dozena bat hitzaldi batzen dituen *Durango 800 urte historian* liburua. Hamar urteotan Durango eta Durangaldearen historiarentzako ekarpen handia egin delako berbaldiotan, jakintza hori gordetzea garrantzitsua dela pentsatuta argitaratu dute liburua, Belen Bengoetxea koordinatzaileak nabarmendu duenez. Durango eta Durangaldeko historia-Goi Erdi Aroan Durangoko Konderrria sortu zenetik hasi

eta XX. mendearen bigarren zatira arteko historia-batzen du liburua. Durango eta Durangaldearen historian zeharreko orain arteko ibilbidea jasotzen du bildumak. Durangoko Museoko berbaldiatik pasatu diren hizlari guztien izenen zerrenda eta jardunaldiak iragarri dituzten kartelak ere jasota geratuko dira liburuan.

Puntu eta jarrai

Hamaikagarren urtez ere, ohi baino aste batzuk geroago baina Durangoko Museora bueltatuko da Historia; kasu honetan, arkeologiaren ikuspegitik. Ideia, arkeologiari buruzko saioak ibilbide

luzea izatea da, eta arkeologia diziplinaren oinarriak lantzea aurreten. Prozesu guztia landuko dute berbaldietan: indusketako landalana, laborategiko lana, dataketak zelan egiten diren, etab.

Oinarritik hastea da, Bengoetxeak dioenez, jardunaldien helburua: arkeologia lanen emaitzak bakarrik ez, oinarri eta prozesuak ere interesa duten guztiei erakustea. Durangoko indusketen adibideak erabiliko dituzte hizlariak aipatutako gaiok jorratzeko. ■ I.E.

Arkeologiari buruzko lau berbaldi eskainiko dituzte XI. edizioan



'Historia lurpetik ateratzen' (berbaldiak)

- *¿Qué es y cómo trabaja la arqueología hoy?* --
Belen Bengoetxea irakaslea, maiatzaren 27an, 19:00etan.
- *Las bases del trabajo arqueológico: cómo leer las huellas de la Historia en el yacimiento* --
Teresa Campos Lopez irakaslea, ekainaren 3an, 19:00etan.
- *Lo que empieza cuando termina la excavación* --
Lorena Elorza arkeologoa, ekainaren 10ean, 19:00etan.
- *Tres mil años de historia de una aldea* --
Juan Antonio Quirós Castillo irakaslea, ekainaren 17an, 19:00etan.

DANTZA > EGITARAUA

Bigarren biderrez egingo dute, domeka honetan, Gaztetxoek Kultur Eguna Durangon. Orain lau urte egin zuten moduan, Kriskitin dantza taldeko kideek antolatuta dute egitaraua.

Orain lau urtekoagaz alderatuta, baina, gaztetxoentzako presatutako askotariko ekintzekin dator bigarren hau. Dantza ez eze, bestelako kultur ekimenak ere izango dira egun osoan zehar.

maiatzaren 23rako Kriskitinek prestatu dituenak, eta helburua gazteek kultur adierazpideekin gozatuz egun polita igarotzea dute: "Geure folkloreaken parte diren alderdi guztiekin goza dezatela", antolatzaileen berbetan. Gaztetxoek elkar ezagutu eta lagun artean kulturagaz gozatu dezatela da domekan ospatuko duten egunaren funtsa.

Kalejiragaz hasita

Antolatzaileek azaldu dutenez, 8 eta 14 urte bitarteko ehundik gora dantzari gaztetxo batuko dira domekan Durangoko kaleetan, eta, besteak beste, Portugalete, Urretxu, Iurreta eta Zornotzako dantzari taldeetako gaztetxoak gonbidatu dituzte Durangora.

Talde guztien kalejirak abiatuko du, 12:00etan, domekako egitaraua; ondoren, Arrupe elkarteak ekarritako antzinako jolasekin gozatzeko aukera izango dute Ezkurdin, eta eguerdian bazkaria egingo dute Kurutzia ikastolan. Arratsaldean egingo dute, amaitzeko, Gaztetxoek II. Kultur Eguneko azken ekitaldia: Plateruena kafe antzokian egingo dute eguneko ekitaldi nagusia. ■ I.E.

Bertsolariak, trikitilariak eta antzinako jolasak

Ehundik gora dantzari gazte batuko dira bigarren aldi honetan

Besteak beste, bertsolaritzak, trikitilariak eta antzinako jolasek izango dute bigarren Gaztetxoek Kultur Egunean euren lekua. Folkloreagaz lotutako ekimenak dira

Gaztetxoek II. Kultur Eguna, domeka honetan, Durangon

Egun osoko egitaraua prestatu du maiatzaren 23rako Kriskitin taldeak



Kriskitin dantza taldeko gaztetxoentzako presatutako ekintzak dira domekakoak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MAIATZAK 23 17:00etan
DURANGON
II. Gaztetxoek kultur eguna
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

MAIATZAK 27 22:00etan
MIKEL ANDUEZA QUARTET
KMON SESSION
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

MAIATZAK 28 22:00etan
IÑAKI PLAZA & ION GARMENDIA
O+HATZ Proiektua
KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

JAR DEZAGUN MUNDUA HANKAZ GORA
Kurutzia Ikastolako Antzerki Taldea
Maiatzak 21-22 • 22:00etan

LAS ALBA
BAI-Bizkaiko Antzerki Ikastegia
Maiatzak 27 • 20:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 4 DURANGO



BIZKAIKO BILDOTSA

ERRALDE
HILTEGIA

HARATEGIAK

ABADIÑO
Teo

BERMEO
Izarzugaza
Barturen
Emilio

BILBAO
Iñaki
Fco. Javier Atutxa

DURANGO
Rafael Agirre
Gallastegi
Pablo Areitio
Jose Luis Etxaniz
Olabe

ERANDIO
Luis Angel

ERMUA
Onaindia

GALDAKAO
Javier Sagasti

GERNIKA-LUMO
Iturbe Anaiak
Jesus Maria Martija

IURRETA
Alberdi prekozinatuak
Javi Cebada

ONDARROA
Belaustegi anaiak
Jesus Andrinua

SANTURTZI
Barquin

JATETXEAK

AMOROTO (OLETA)
Ibaigane


BERRIZ
Pedro Juan
Ganeko Etxe
Toki Ona
Ereña

MARKINA
Zubi Ondo

MUXIKA
Astei



Askatasun etorbidea 48
48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48
Fax: +34 94 621 77 66





Durangaldeko Behargintza, ekintzaileen zerbitzura

Ekintzailearen Egunaren harira, gure eskualdean Behargintzak lantzen dituen ildoak aztertu gura izan ditugu. Enpresa sortu edo sendotu gura dutenek zerbitzu interesgarriak dituzte eskura, Durangoko bulegoetara hurreratuz gero.

Ekintzaileen zalantzak argitzen dira Enpresa Sormenean

150 enpresa baino gehiago sortu dira azken urteetan Durangaldean

Durangoko Amankomunazgoko garapen agentzia da Behargintza. Bere zerbitzuak Amankomunazgoko kide diren udalerriei zuzenduta daude: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar, hain zuzen ere. Eskualdeko garapen agentzia den partetik, hurrengo lan ildoak jorratzen ditu: Tokiko Garapena, Enplegua eta Enpresa Sustapena.

Enpresa Sustapenaren baitan, bi zerbitzu bereizi daitezke: ETEentzako Aholkularitza (Enpresa txiki eta ertainak) eta Enpresa Sormena. Lehenengoa, eskualdean errotutako enpresak lehiakorrak izatea helburu duen zerbitzua da. Enpresek gaur egungo nahiz etorkizuneko oztopo eta erronkei aurre egiteko aholkularitza ez ezik, administrazioek eskaintzen dituzten diru-laguntzen berri eman eta baliabide espezializatuak bideratzen ditu. Enpresak sendotu ahal izateko tresna da Behargintzako zerbitzu hau.

Enpresa Sormena

Bigarren zerbitzua enpresa berriak sortzeko aholkularitza zerbitzua da, eta beharrezko den informazio osoa eskuragarri dute bertan sortzaileek. Besteak beste, era juridikoaren azterketa, finantzaketa eskatzeko aukerak, diru-laguntzak, fiskalitatea, enpresa kudeatzeko formakuntza... ekintzaileek duten edozein zalantza argitzen da Enpresa Sormena zerbitzuan.

Durangoko Amankomunazgoak zerbitzu hau martxan ipini zuenetik ia zortziehun ekintzaile hurreratu dira informazio eske Behargintzako bulegoetara, bostehun enpresa proiektu baino gehiagoraz. Aurkeztutako proiektu hauetatik 150 enpresa baino gehiago sortu dira azkenean Durangaldean; Merkataritza eta Enprezentzako Zerbitzuen arloetan, batez ere. Martxan ipintzeko ekintzaileek gehien erabiltzen duten era juridikoa autonomo izaera izan ohi da.

Ekintzailearen Eguna

Durangaldeko Behargintzak antolatzen dituen ekintzen artean –eskualdean enpresa berriak martxan ipini eta lehendik daudenen lehiakortasuna hobetzeko– Ekintzailearen Eguna dago: maiatzean zehar ospatu edo garatzen dabil, Estatuko

autonomia erkidego guztietan urtero egin ohi den moduan.

Behargintzatik azaldu digutenaren arabera, ekimen honen helburua ekintzailearen irudia bultzatzea eta bertako enpresek eskualdeko garapenaren alde egiten duten lana goraiatzeko da.





EKINTZAILEEN ESPERIENTZIAK

Behargintzaren babesak enpresak sortu, sendotu eta hazteko oinarri



“Eboluzio positiboa izatea da gure garaipena”

Makina berezien, instalazio automatizatu eta sistema errobotizatu diseinu eta garapenean egiten du lan Intadi enpresak.

Libe Azkun esan digunez, ibilbidean zehar gehien asebate duena bezeroak eurekin lanean jarraitzea da; “bezeroa asebate dela”. Krisiak automozioan gogor jo du, eta horrek eragina izan du euren lanean. Bere ustez, garaipen handiena “bi urtetan lanean mantentzea eta eboluzio positiboa edukitzea” izan da. Behargintzak zerbitzu ona eskaini diela dio: sorrerako babes eta laguntzan zein oraingo informazio eskaintzan.



“Zerbitzu ona, serioa eta konprometitu da”

2007an ipini zuten martxan Iditu Records. Hainbat funtzio ditu: musika denda, grabaketa estudioa, entsegu lokala, soinu profesionala eta diseinu grafikoa.

Roberto Peñak azaldu digunez, gauzarik onena “proiektuak sendotzen eta merkatu hain zailean lekua egiten joatea” da. Krisi sasoiaren finantzatzea “gaitza” izan dela dio, baina “lehiakorrak izatea” lortu dutela. Enpresa moduan hazteko aukera ikusten dute, nahiz eta oraingoz sendotzea lehenetsi. Behargintzaren zerbitzua “oso ona, serioa eta oso konprometitu izan da”, gaineratu duenez.




“Aholku, laguntza eta erraztasunekin oso pozik gaude”

Dekoratuzaileak dira A-metz enpresakoak. Proiektuak, erreformak eta diseinu integralak egiten dituzte. 2009ko urtarrilean zabaldu zituzten ateak, eta balantzea positiboa dela esan digu Delia Etxaburuk.

Gehien asebate duena “amets bat egi bihurtzea eta etorkizuneko aurreikuspenak onak direla ikustea” izan ei da. Lorpen handiena lan bolumena igotzen joan dela, “eskerri interesgarriekin”.

Behargintzak eskainitako aholku, laguntza eta erraztasunekin oso pozik azaldu da Etxaburu, “une oro informatuta” egon eta horri esker egitasmoa aurrera atera dutelako.



“Bezeroa geureganatzea izan da gaitzena”

Egunerokotasunean erabiltzen diren deneriko produktuak diseinatzeko kitarak, bizikletak, jostailuak... 2007an hasi ziren martxan, eta produktuak “sormena erabiliz” diseinatzeko dituzte.

Proiektu garapenearen ziklo osoaren barne izateak asetzen ditu ekintzaile hauek. Gorka Esnalen berbatan, “bezeroa geureganatzea izan da gaitzena”. Diseinatutako produktua erabilgarria izatea eta merkaturatu lekua egitea dute lorpen nagusia. “Gogoia, esperantza, gaitasuna eta lana uztartzen dituen bidelaguna izan da Behargintza”.



“Sektoreko erreferentzia izan gura dugu”

Marketingean, diseinu grafikoa eta weben diseinuan dihardu Strike enpresak, 2008tik. On-line eta Off-line promozioetan espezializatuta daude. Imanol Revuelta eta Jacobo Capelastegui “egoera gaitz hauek biziraun izanari” ematen diote garrantzia.

Lorpen esanguratsuenak “akzio komertzialaren eraginez inguruko hainbat enpresagaz hartu-eman sortzea” izan ei dute. “Hazi eta Durangaldean sektoreko erreferentzia bilakatzea” dute helburu. “Behargintzatik tratatu ezin hobea” jaso dutela azpimarratu dute: “Beti laguntzeko prest egon dira.”



“Behargintzaren partetik babes handia jaso dugu”

Metalaren eraldaketan egiten du lan TROEM-EGA enpresak. Perfilak eta hodiak bihurtzen eta herdoilgaitzen eta aluminioaren soldaduran espezialistak dira. 2009ko irailean abiatu ziren.

Proiektua lan-taldearen gaitasunari esker sendotzen doala diote arduradunek. “Gai administratibo eta burokratikoak sarritan oztopo” izan direla azaldu digute, kanpoko laguntza izan arren. Hainbat sektoretako enprekin dihardute hartu-emanetan, enpresa hazi eta zabaltzeko asmoz. “Behargintzatik babes handia” jaso dutela eta “garrantzitsua” izan dela dio.



IRITZIA >

Gutunak **Hiltegi batek bere sena behar du**

Zorrotzako makrohiltegia itxi da, azaldu dutenez, ekonomikoki lur jota zegoelako hiltegia bera gestionatzen zuen enpresa.

1991-1992 urtea izango zen, lankide batekin lehendabiziko Zorrotzako hiltegiara joan nintzena. Ireki berria zen eta okelaren transformazioan lan egiten zuten industriaren ispilu eredu garri eta adierazle aurkeztu zuten. Estatuko hiltegirik handiena legez eta multinazional batzuen homologazioak jaso zituen hiltegi modura agertzen eta saltzen zen Zorrotzako hiltegia. Lankidea eta biok Eusko Labeleko bekario gisa joan ginen. Hiltegiako gerentearekin hitz egin ostean, bertako arduradunak hiltegia erakutsi zigun. Gerora askotan joan behar izan nuen arren bertara, eta bertako ganbera frigorifikoetan milaka abelburu sailkatu eta klasifikatu banituen ere, egun hartan hauteman nuena ez zait sekula ahaztu. Sekulako hiltegia zen hura, handia, benetan handia: lagun asko lanean, abelburu asko, interes ekonomiko asko jokoan, kafetegian ere jende asko...

Aurkezpenetik egun batzuetara, ganbera barruko langileen arduradunak, Rikardok, lankideari eta bioi abelgorrien kanalak sailkatzen eta klasifikatzen erakutsi zigun. Gizon jatorra, errusiarrek erabiltzen duten moduko txapela erabiltzen zuen burua estaltzeko, ganberetako hotzetik babesteko. Izan ere, errusiaren txapel hark gauzak beste modu batean ikusten lagunduko zidan. Hilabeteak igaro eta gero, zergatik ez nuen erabiltzen txapel beroa galdetu zidan. Eta nik, kotoizko txano zuri mengela buruan, legediaren eta homologazioaren funtsak agertu nizkion; homologazioa zela eta, debekatuta baitzegoen txapel berorik erabiltzea. Hala ere, azkenean Rikardori egin nion kasu. Eskerrak. Abuztua zen eta Bilboko jaiak ziren batean, kanpoan bero eta barruko 0-2°C aldaketak edonon lur jota uzten duen horietako egun batean, preso geratu nintzen ganbera frigorifikoetan. Dena ilun eta hotz galanta. Ordu batzuetara atera ninduten. Buruan neukan pasamontañasak, artilezko txanoak, ikaragarri lagundu zidan ordu haiek gainditzen. Orduetik aurrera homologazio kontuak, homologatzen ari zirenen eta homologatuak zirenen arteko jokoa, hobeto ulertzen hasi nintzen. Joko hura hipokresia hutsa zela ikusten hasi nintzen harrezkero. Eguneroko lanean ere ikusten bainuen, okelaren kalitate organoleptikoa gutxiri axola zitzaizola; homologazioa zela garrantzitsua.

Baina, nola egin proiektu bat errentagarri, -nahiz industria bat, nahiz hiltegi bat izan-, enpresa hori bigarren mailan jokatzerantz derri gortzen dugunean? Horixe gertatu da Zorrotzako hiltegian, garrantzitsua eta funtsezkoa norbanako batzuek gerora egiten zituzten merkaturatze-prozesuak zirela. Hiltegia bera ez da izan garrantzitsua. Hiltegia, soilik, okelaren prozesuaren lehen atal zatitza erabili da. Gainera, atal hori batzuetan bakarrik erabili izan da, beste kasuetan beste hiltegi batzuk bete baitute funtzio hori. Orduan, nola sustatu proiektua, nola sustatu mezua? Elkarlanik gabe eta edozein enpresak behar duen oreka eta egonkortasunik gabe, zer egin daiteke? Eta gainera, hau guztia, desoreka hau, zerbitzu publikoa den mezutik argudiatu nahi izatea ere gerta leike. Nola argudiatu daiteke publikotasunaren mezua, hiltegia EAEtik kanpo dauden txahalak bertan hiltzeko erabiltzen bada? Kanpotik dakartzaten txahal horiek, bai animalien ongi zateari, bai alde ekonomikoari begiratuta, ez lirakeke hobeto egongo bere jaioterri inguruan hilko balituzte? Hiltegiaren funtzioa publikotzat hartuko bagenu, osotasunean mantendu beharko genuke funtzio publiko hori; ala, ez al digute exijitzen bertan erroldatuta egotea EAEko edozein herritako kiroldegi publikotan bazkide izateko?

Hiltegi batek, edozein enpresak bezala, bide bat egin behar du bere mezua susta dezan. Bere produkzioa egiteko enpresa batek erabilitako mezua merkatura iritsiko da eta merkatuak erabakiko du produktu hori kontsumitu ala ez. Hiltegi batek ere, beste edozein enpresak bezala, berak aurkitu eta ezarri behar du bere mezua. ERRALDE hiltegiaren kasuan, gure mezua lau kontzeptutan oinarritzen da:

1- Gure proiektua nekazaritza-politika egiteko proiektu modura agertu dugu hasieratik, gauzak aldatzeko. Elikadura subiranotasunaren kontzeptuari bultzada emateko proiektu gisa agertu nahi

dugu. Eta hori sustatzeko esperientzia pilotua da ERRALDE hiltegia.

2- Pertsonengan oinarritutako lan-harremanak bultzatu eta indartu nahi dira. Denok gara langileak, eta denok aterako dugu enpresa aurrera, edo denok utziko dugu enpresa bidean hiltzen. Faktore produktiboa eta langileak ezin litezke hain erraz bereiztu, denok joan behar du ondo orekatuta, traineru batean antzera. Pertsona da garrantzitsua eta denok ahalegindu behar dugu gustora lanera joaten eta gogoz lan egiten. Horretarako, jakina, hainbat baldintza bete behar dira eta baldintza horiek sustatu egin behar dira.

3- Hasieratik, EAEn kalitatearen inguruan egon diren ereduak kolokan jarri ditugu. Kalitatearen eredu propio baten aldeko apustua egin dugu: kalitatezko produktu bat ekoizleari ondo ordaindutako produktua izatean oinarritzen dela azaldu eta demostratu dugu. ERRALDE, marka bihurtu dugu eta hori ERRALDE mezu gisa existitzen delako garatu da. Mezu hori existitzeko zirkuitu txikien aldeko apustua, hurbiltasuna, faenatu tradizionala, komertzializazioaren bitartez elikadura subiranotasunaren aldarrikapena eta abar luzea landu behar izan ditugu. Era berean, ERRALDE hiltegia mezu horren alde lan egiteko tresna bihurtu dugu, beraz, ez da inolaz ere edozeinen menpe egon litekeen helburu estanko bat.

4- Ekonomikoki enpresa errentagarri bihurtu dugu hiltegia. ERRALDE hiltegia inongo laguntzarik gabe eta merkatuko legeekin irauko lukeen proiektu bihurtu dugu. Ekonomikoki autonomoak bihurtu gara. Ez gara autonomoak hiltegi berria egiteko, baina bagara autonomoak gure proiektua gaur egun aurrera eramateko. Diru publikoa behar dugu hiltegi berria egiteko, edo agian ez; beharbada ERRALDE hiltegiari diru pribatuak etorri beharko luke proiektua sustatzera? Baina funtzio publikoa eta politika bera, etorri litezke eragile pribatuengandik ala? Ez litzateke logikoa izango, baina gerta liteke diru pribatuak funtzio publikoaren zama hartzea, inongo logikarik ez eduki arren, funtzio publikoak interes pribatuaren zama bere gain hartzea gerta litekeen bezala. Ez litzateke, bada, lehen aldia izango.

Milaka baserritar, artzain, harakin eta langileren gune ekonomiko berri legez sustatu da ERRALDE hiltegia. Lehen sektorean bere funtzioa betetzen duen enpresa gisa. Baina betidanik esan dugu ERRALDE hiltegia, hiltegi bat baino gehiago dela: Sena duen lantegi bihurtu dugu. Eta hori lortzea oso zaila da. Batek eduki dezake, diru-laguntzen menpe dagoen hiltegi bat, eduki dezake administratiboki lagunduta, azken teknologiaz hornitutako zatiketa-gela bat, eduki ditzake administratiboki diru publikoaren marka batzuk merkatuan. Baina dena edukita ere, gerta leike horrek guztiak ezertarako balio ez izatea. Senik gabeko proiektuak, fede gabeko proiektuak ekartzen baititu, eta fede gabeko proiektuekin oso zaila da edozein mezu gizareratzea.

Okelaren inguruan lan egiten dugun enpresen elkarlana derrigorrezkoa da guztion mesederako. Baina, arren, ez diezagula ERRALDE- ren sena inork eta ezerk ikutu.

Eneko Egibar Artola (ERRALDE)

Zaborraren kudeaketari buruzko gogoeta kolektiboa

Berrizen, urtero, 2.000 tona zabor baino gehiago produzitzen da; 1,18 kilo pertsona eta eguneko. Horren aurrean zein da gure jarrera? Etorrizunean horretaz gogoeta egitea planteatu dugu datozen asteetan.

Etxean hondakinen bereizketa egin ondoren, zer gertatzen da horiekin? Batzuk birziklatu, beste batzuk Zabalgarbiko erraustegira, beste batzuek zabortegean amaitzen dute. Zer kopurutan? Hondakinen produkzioa gutxitu daiteke? Gehiago birziklatu daiteke? Erraustegia hondakinak tratatzeko tresna da, edo elektrizitatea egiteko negozio bat? Gutxitu daiteke zabortegean amaitzen duenaren kopurua? Badago alternatibarik?

astekaria@anboto.org

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Galdera hauek guztiak mahai gainean jartzeko karpaina bat antolatu du berriztar talde batek, *Durangaldea maite dugulako* dinamikaren barruan. Eta, ahal den neurrian, behintzat, erantzunak emateko.

Herriko probalekuan jarri den erakusketa batez hasi da ekimena. Bertan panel batzuetan zaborraren inguruan dagoena eta izan beharko lukeena azaltzen dira. Erakusketan bertan, konpostegi baten presentziak hondakinak ongarri bihurtu daitezkeela gogorarazten digu. Asteburuetan, musika eta bideo emanaldiek jendea erakarriko dute erakustokira; tartean, gazteenak. Zaborraren tratamendua ezagutarazteko eta parte hartzen animatzeko tailerrak ere antolatuko dira.

Prestaketa horrekin, maiatzaren 27an, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, zaborraren tratamenduaren inguruan Kultur Etxean antolatuko den hitzaldiari lekua emango zaio. Bertan Izaskun Txintxurreta Usurbilgo ingurumen teknikaria eta Hernaniko zinegotzia dena atez ateko zabor biltzeaz mintzatuko da. Juan Mari Beldarrainek Eguzki talde ekologistako kideak erraustegiaren inguruko azalpenak emango ditu, eta Francisco Sainzek EHNE sindikatuaren izenean konpostajeaz hitz egingo digu. Antza, alternatibak, egon, badaude.

Hitzaldi horretan gure kezka eta galdera guztiak lekua edukiko dute. Hori errazteko euskara-erdara itzulpena ziurtatuko da. Beraz, zaborren kudeaketari buruz zeresanik baduzu, hortxe duzu lekua.

Berriz Maite Dugulako

Klik batean @



Harlauzazko bidea egoera txarrean

Pablo Pedro Astarloa eta Kurutzia kaleek bat egiten duten tokian harlauzazko bidea dago, oso egoera txarrean. Autoak etenik barik pasatzen direnez, apurka-apurka, tramu hori hondatu egin da. Astiro pasatuta ere, sortzen den dardara deserrosoa da. Konpondu egin beharko lukete bideak okerragora egin aurretik.

Merkataritzarako hirigintza Durangon

2009. urtean Durangoko Merkataritza Suspertzeko Plan Bereziaren azterlana jaso genuen (PERCO). Lan horretan zerbitzuen sektorearen egoerari buruzko aurretiazko diagnostikoa eta ildo estrategikoak eta jarduteko proposamenak zeuden bilduta. Azterlan horrek 46.748 euroko kostua ekarri die Udalaren diru-kutxei.

Merkataritza foroan eztabaidatu ondoren erabaki genuen oso tresna baliagarria dela merkataritza eta zerbitzu sektorea gure udalerrian suspertzeko eta bultzatzeko. Eta horrek apustu estrategikoa izan behar du Durangoko Udalarentzat.

Azterlanak proposatzen dituen ekintzetako asko merkataritza hirigintzari buruzkoak dira. Ekintza horien bitartez, herri erakargarriagoa lortu gura da, hobeto argituta dagoena, mugikortasun hobea duena eta, azken batean, ederragoa eta erosoagoa den herria. Ekintza horiek guztiak ondorio izango dituzte gutako guztien gain, eta merkataritzako jardueira suspertuko dute.

Gure ustez, Udalak azterlan hori hartu behar dukontuan, gaur egun edozein obrari ekin aurretik.

PERCO mahaia

Hargatik, azterlana aurkeztu zenetik urtebete igarota zela eta Gobernu Taldeak kontuan hartzen ez zuela ikusita, moztio bat aurkeztu genuen udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran, aztergaien artean PERCO azterketa onestea eta Perco Mahaia sortzea sartzeko. Mahai horretan, Udaleko merkatarien elkarteak, eta teknikariak eta politikariak egongo lirarteke. Moztioa onetsi zen, eta hala, Perco Mahaian lan egiten hasi gara.

Proposatutako ekintza asko merkataritza hirigintzari buruzkoak dira

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko maiatzaren 21a - 9. urtea - 374 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anbot.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 27an, 20:30ean LAS ALBA

'La Casa de Bernarda Alba' Lorcaren lanean oinarritu dira Bizkaiko Antzerki Ikastegiko (BAI) aktore gazteak karrera amaierako lana sortzeko. BAiren proposamenak originalaren gai eta gatazka nagusiari eusten dio, baina alaben ikuspuntua da taularaten dena. Espazio poetikoa fokotzen da musika eta dantzaren laguntzaz.

ANTZERKIA

BERRIZ

» 'Escenas de amor y humor al fresco' Txintxaun kolektiboaren eskutik, maiatzaren 21ean, 22:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» 'Las Alba' Bizkaiko Antzerki Ikastegiko aktoreak ikusteko aukera, maiatzaren 27an 20:30ean, San Agustinen.

ELORRIO

» 'Xabinaitor' Gorringo taldea. Arriola antzokian, maiatzaren 21ean 22:00etan.



» 'Otto' antzerki saioa, maiatzaren 26an 11:00etan, Arriolan.

BERBALDIA

ABADIÑO

» Txinarako bidaia kontakutako digute Elorrioko Maite Blancok eta Iruñeko Aitor Huicik, maiatzaren 27an, Txanporta Kultur Etxean, 19:00etan.

ZALDIBAR

» 'Orientera bizikletan', hiru urte hiru hile eta hiru egun munduari bira ematen. Bidai- diaporama Alice eta Andoniren eskutik, maiatzaren 27an 18:30ean, Liburutegian.

BESTEAK

DURANGO

» Javier Mañón umoregilea, maiatzaren 27an 23:30ean, Misarben.

» Nagusientzako irteera, maiatzaren 25ean 09:45ean, irteera Urduñara, Santiago mendia eta Nerbioi ibaiaren sorlekura.

» Uda Topera-n parte hartzeko izen emateko epea zabaldua dago, maiatzaren 17tik 27ra arte, Gazte Informazio Bulegoan, Pinondo Plazan.

ERMUA

» 'Andaluzia zentroaren kultur astea' maiatzaren 17tik 23ra, Andaluziako zentroan.

» 'Udalekuetarako izen ematea' maiatzaren 21era arte, 08:30etik 14:30era, Udaletxean.

IURRETA

» VII. Okela eta Ardao Eguna maiatzaren 22an, 11:00etatik 14:30era, Askondo Kalean.

» Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak egingo ditu maiatzaren 22an 08:00etan eta 23an, 08:30ean Iurretan irtenda.

MAÑARIA

» 'Liburuak kalera' ekintzen sari banaketa, maiatzaren 21ean 18:00etan, Liburutegian.

» XV. Nekazal eta Artisautza Azoka, ahuntz azpigorrien XIII. monografikoa eta antxumeak burduntzian erreta maiatzaren 23an, 10:00etatik 14:30era, Herriko Plazan. 18:00etan, pilota partiduak pilotalekuan.

DEIAK

IURRETA

» 'Udaleku Ibiltariak Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta Udaleku Finkoak Ozaeta,uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkarte.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

ERAKUSKETA

ABADIÑO

» 'Malaire. Kinshasara bidaia'. Xelu Angoitiaren argazki erakusketa, maiatzaren 22ra arte, Errota kultur etxean.

BERRIZ

» 'Naturari' Patxi Badiola argazkilaria Euskal Herriko kostaldean jasotako irudiak ikusgai, maiatzaren 21etik ekainak 13ra, Kultur Etxean.

» Gaur egungo zaborren kudeaketa erakusgai, ekainaren 5era arte, Probalekuan.

» Udalak antolatutako lehen mural lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa antolatuta dute, maiatzaren 17tik ekainaren 4ra, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.

DURANGO

» Cristina Rodriguez margolariaren lanak, maiatzak 29ra arte, Arte Lekun.

» 'Bariazioak, lokarriak eta grafiak' Mariemi Otaolak bere eskulturak erakusten ditu. Maiatzaren 30era arte Museoa egongo dira ikusgai.

ELORRIO

» 'Nikaraguako argazkiak' Iñaki Agirianoren erakusketa, Iturri kultur etxean, maiatzaren 21era. Kainaberrako hitzaldiekin lotuta.

ERMUA

» 'Eskulturak eta musika tresnak' aukera egongo da Lobiano Kulturunean.

MALLABIA

» Argazki zaharren erakusketa maiatzaren 23ra arte, herriko liburutegian.

IKASTAROAK

BERRIZ

» Norbere txakurra hobeto ezagutzeko ikastaroaren bigarren zatia egingo dute, maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era. Doakoa.

ERMUA

» Txalaparta jotzen ikasteko ahalik eta arinen izena eman, SMSa 639 414 295 telefonora bidaliz edo ermua_berba@aek.org helbidera e-maila idatziz, maiatzaren 27an, Betiondoko lokaletan, 19:00etan.

» Spinning ikastaroa ostiralero 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen ematea: Udak kiroldegian.

IPUINAK

DURANGO

» 'Munduko kontalariak' Jose Campanari argentinarrak helduei zuzendutako istorioak kontakutako ditu, maiatzaren 21ean 20:00etan, Liburutegian.

IURRETA

» Haurtxoen irakurketa kluba, 3-6 urteko haurrentzat, maiatzaren 21ean, 17:30etik 18:30era, Herri Liburutegian.



» Haurren irakurketa kluba, maiatzaren 25ean, 16:45ean, 'Numenak alaba' 8-10 urte bitarteko umeentzat. 17:45ean, 'Zupankapaloak' 10-12 urtekoentzat, liburutegian.

» Haurren irakurketa klubaren amaiera festa, maiatzaren 28an, 17:00etan, liburutegian.

maiatzeko agenda



Maiatzak 21-25-28 • Herri Biblioteka
21ean, 17:30-18:30 Haurtxoen irakurketa kluba (3-6 urte)
25ean, Haurren irakurketa kluba: 16:45 (8-10 urte) / 17:45 (10-12 urte)
28an, Haurren irakurketa kluba. 17:00 Bukaera festa
Helduen ipuin kontalaria. 20:00 "Mal de amores"

Maiatzak 22-23-30 • Txirrindulari elkarte
22an, 08:00-08:30 XXVIII. Elkarte eguna
23-30, 08:30/08:00 Ibilbide ezberdinak (102-138km)

Maiatzak 22 • VII. Okela eta Ardao eguna
11:00-14:30 Askondo kalean

Maiatzak 25 • Adiñekoen Saila-Mankomunitatea
09:45 Irteera: Orduña "Monte Santiago y nacimiento del Nervion"

Maiatzak 29 • Maiztegi Herri Eskola
Guraso Elkarte XI. Kirol Jardunaldiak. 10:00 Kross eskolarra

IURRETAKO UDALA

JAIK

BERRIZ

» **Andikoako Aseztio jaiak**, maiatzaren 22an auzotarren afaria, Xabier eta Miren Amuriza bertsolari eta trikitilariekin, Auxoko lokalean.

» **Urdeia Baselizan, 13:00etan**, **bertsolariak**: Xabier Amuriza eta Miren Amuriza, maiatzaren 23an.

DURANGO

» **Euskal Astearen baitan maiatzaren 22an**, 19:00etan, **Berrinautak** kalean zehar, Kurutzia Ikastolako antzerki taldea. 19:30ean, **XXVIII. Euskal Dantza Jaialdia** (I. emanaldia) Andra Mariko elizpean. 22:00etan, Kurutzia Ikastolako antzerki taldearen eskutik **'Jar dezagun mundua hankaz gora' antzerki saioa**, San Agustin Kultur Gunean. **Maiatzaren 23an** 12:00etan, **Gaztetxo II. Kultur Eguna**, kalejira, euskal jokoak, buruhandiak, trikitilariak Ezkurdi plazan. 12:30ean, **XXVIII. Euskal Dantza Jaialdia** (II. emanaldia) Andra Mariko elizpean. 17:00etan, **Gaztetxo II. Kultur Eguna**: musika eta dantza saioa; Urretxuko Lurra, Portugaleteko Berritasuna, lurretako bertsolari gazteak, Durangoko trikitilariak, Kriskitin dantza taldea Plateruenean.

» **Amaiur**, triki-rock doinuak, maiatzaren 22an, txosnetan (Txanporta plazan), gaueko 23:30ean.

BERRIZ

» **Abesbatzen kontzertua**, hiru taldek parte hartuko dute, hilaren 21ean 20:00etan, Berrizko Parrokian.

DURANGO

» **Mikel Andueza Quarteten** jazz musika entzuteko aukera, maiatzaren 27an gaueko 22:00etan, Plateruenean.

» **Sarrera Libreko III. jardunaldia** egingo da, maiatzaren 21ean 17:00etan. Leioako kontserbatorio-ko ikasleek **Tronpeta kontzertua** emango dute.

ERMUA

» **Vértigo Rock: Muro, Erasol, Insohnmio, Storbais, Arale eta SIN**, maiatzaren 22an 17:00etatik, Orbe Kardenalaren plaza ingurueta-ko kaleetan.

MAÑARIA

» **Udaberriko abesbatza emanaldia**. Mañariako Kirikiño abesbatza, Santutxuko Euskeria eta Sopuerta-ko Atxaspe, maiatzaren 22an 20:00etan, Andra Maria parrokian.

» **DYak antolatuta ate ireki eta Tailerrak**. Anbulantzia barrutik ezagutzeko aukera, eta nagusi eta haurrentzako tailerrak antolatu dituzte, maiatzaren 23an, Kultur Etxe ondoan.

ZORNOTZA

» **Ganbera Musika: 'Capella Antigua'**, maiatzaren 21ean 20:00etan, Boroako San Pedro elizan. **'Ana Alcalde'** Duadeako San Miguel elizan, 22an 20:00etan.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'Corazón rebelde'** maiatzaren 27an 20:30ean, Zugazan.

ERMUA

» **'La cinta blanca'** maiatzaren 27an 19:00 eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean.



Maiatzaren 27an, 22:00etan

MIKEL ANDUEZA, QUARTET

Jazz doinuak dakartzkigu Mikel Andueza saxofoi-jotzaileak. Hiru musikariz lagunduta egongo da; Jon Piris kontrabaxuan, Miguel Salvador gitarrajotzailea eta Iñaki Jaiio durangarra bateria jotzen. Kontzertuan inprobisazio askean arituko dira musikariak. Taula gainean suertatzen dena eta gauza berriak eskainiko dizkigute jazz emanaldian. Zuzenekoak eta inprobisazioak ematen duen freskotasunaz gozatzeko aukera Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Prince of Persia

Zuzendaria: Mike Newell
barikua 21: 19:00/22:00
zapateria 22: 17:00/19:45
22:30
domeka 23: 17:00/20:00
astelehena 24: 19:00/22:00
martitzena 25: 20:00



Opera en HD

El oro del Rin

eguztzena 26: 20:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Lourdes

Zuzendaria: Jessica Hausner
zapateria 22: 22:30
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Alicia en el país de las maravillas

Zuzendaria: Tim Burton
domeka 23: 20:00
astelehena 24: 20:00



LEHIAKETA

IURRETA

» **Aita San Migel jaietako kartel lehiaketara** aurkezteko azken eguna: ekainaren 18a Kultur Etxean.

MUSIKA

ABADIÑO

» **Arte Factum, Tantak Korala eta Orfeo de Usansolo** Kontzertu korakal, maiatzaren 22an, 20:00etan, elizan.

BOTIKAK

- Barikua, 21**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Zapateria, 22
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Sanroma/Sagastizabal/Balenciaga/Unamunzaga/Campillo/ Mugica
• Irigoren* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 23
09:00-09:00
• Irigoren (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Astelehena, 24
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Martitzena, 25
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
Eguaztzena, 26
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Eguena, 27
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 25° BARIKUA**
Eguzkipean jarraituko dugu eta tenperaturak goranzko joerari eutsiko dio. Behe-hodei batzuk agertuko dira goizaldean, baina gerora berriro ere eguzkia jaun eta jabe izango da.
- 27° ZAPATUA**
Giro eguzkitsuagaz hasiko dugu asteburua. Haizeak ekialdetik joko du, eta eguna zabalduz gero zerua oskarbi agertuko da. Termometroak gora egingo du eta 24 °C-ren bueltan geldituko dira tenperaturak.
- 29° DOMEKA**
- 28° ASTELEHENA**
- 28° MARTITZENA**

Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefakzioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behea, 3. atea
Sakelakoa 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurreta

Baimendun
Instalazalea

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebés
Instalazale
Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

ARGITAPEN TERAPIAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

urtiaga

Solaguren Kalea, 3
Tel./faxa: 94 681 44 74
MATEANA/ABADIÑO

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santukurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Ubide iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo

Pinturas Sagasta

Pinfaras
Pinfaras

• Fabrikatutako proiektu berriak (inpermabilizazioak, barnizatuak...)
• Era guzietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak...)
• Aurrekontuak, konpromiso gabe

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatutak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2 esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

• TIC aholkularitza
• Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
• Konfigurazioa eta instalazioa
• Mantenimendua
• Formazioa
• LOPD/LSSI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Lehenengo ekitear dauden talde guztien erretolika partiduz partidu eta puntuz puntu joatea izan ohi da. Denboraldia azken txanpara heltzen denean hasten dira komeriak; batez ere, behean dabilzan taldeentzat. Bat-batean berdintzeak xarma galtzen du eta hiru puntuak batu beharraren larritasuna nagusitzen da. Berrizi horixe bera gertatu zaio. Estu eta larri ibili dira denboraldi osoan, eta golik ezak behean ibili beharrera kondenatu ditu.

Orain hile bi Andres Olabarria ondarrutarrak hartu zuen taldearen gidaritzat, eta harrezkero taldeak beste itxura bat eman du. Puntuak hirunak batu behar zituzten, eta lortu dute helburua. Azken zazpi partidue-

Pausu handiak emanda

tatik bost irabazi dituzte eta bat berdindu. Gainera, garaipen asko arerio zuzenen kontra lortutakoak izan dira; Ortuella, Getxo eta Gatikaren aurka. Txindurri lanerako denborarik ez eta pausu handiak emanda heldu dira helmugara.

Motibazioa txertatuz

Olabarriak zerikusi handia du taldearen erreakzioan. Bera etorri eta gero egin dute gora. Gogoratzen duenez, taldea moral aldetik "oso baxu" aurkitu zuen: "Lehenengo eman nien berbaldean buruak behera begira ikusi nituen. Beraz, taldeari burua altxatzen laguntzea eta konfiantza txertatzea izan zen lehenengo egitekoa". Ondoren,

"txip aldaketa" etorri zen; jokalarien mentalitatea aldatu gura zuen gauza desberdinak probatuz. Kornerretan zona defendatzen ohituta bazeuden, buruz burukora aldatu zuen. Sistema ere aldatu zuen. Ohiko 4-4-2 sistema 4-3-3 bihurtu zen: "Taldeak gola behar zuen, partiduak irabazi zein konfiantza hartzeko".

Asteburuan Galdakao hartuko dute etxean, eta derbi txiki bat izango da, Galdakao Berriren jokaturako bost jokalaridauelako. Bestalde, datorren urtean Andres Olabarriak jarraituko du entrenatzaile karguan. Taldean ez ei da baja askorik egongo: "Postu batzuk indartu behar dira, baina talde polita daukagula uste dut". ■ J.D.

24 Anbotopeko, liga irabazi guran

Lehenengo erregionaleko igoera fasea amaitzen dabilta Zaldia, Tabirako eta Anbotopeko. Azkeneko talde hori da oraindik liga irabazteko aukerak dauzkan talde bakarra.

25 Nazioen arteko torneo saskibaloian

Euskadi, Katalunia, Galizia eta Lituaniako selekzioak Landako erakustazokan lehiatuko dira asteburu honetan. Tabirakoren 50. urteurrena dela eta ekarri dute torneo Durangora.

Talde-afariko mahaiburua edertuko duen koparen bila

Anbotopetok lehengo erregionaleko liga irabazteko aukerak ditu



Urritik apirilera zortzi garaipen lortu zituzten bata bestearen atzean. Ana Dominguez

Liga amaitzeko jardunaldi bi falta dituzte eta Centro Salmantinogaz 12na garaipenagaz berdinduta dago Durango taldea. Zoritxarrez, averagea barakaldarren aldekoa da. Hala ere, azken segundora arte presioa sartzeko asmotan dira. Liga irabazita ere, ez lirakeke mailaz igoko, eurek horrela erabakita, ez dutelako maila berriko eskakizunetara moldatzeko modurik. Hala ere, liga amaitu ondoren egin ohi

duen talde afarian "zer dotore luzituko lukeen txapeldunen kopak mahaiaren erdi-erdian" onartzen du Fran Costana jokalaririk: "Liga ez genuen ohiko motibazioagaz hasi, baina orain ilusioa daukagu".

Sarritan ligak txikikerietan eta une laburretan erabakitzen dira. Centro Salmantinoren kontrako averagearen istorioa da horren lekuko. Barakaldon Anbotopetok irabazi zuen (77-84), eta Durangon Centro Salmantinok (91-98). Partidu biak zazpi puntuko aldeagaz amaitu ziren eta, arauk diotenez, punturik gehien sartu duen irabazlearentzat da averagea. Gainera, Tabirakoko neurketan luzapena jokatu behar izan zuten; alde batera zein bestera joan zitezkeen garaipena.

Anbotopetok derbi bi jokatu ditu zortzi egunen barruan.

Joan zen astean erraz menderatu zuten Julza-Zaldua (59-93), eta bihar Tabirako Baqué hartuko dute etxean.

Liga arraroa izan da Anbotopetokentzat. Liga erregularra "aparteko motibazio barik" jokatu zuten, baina, igoera fasean matematikak aldeko izan zituzten, eta bigarren postuan ekin zioten: "Orduan hartu genuen benetako puntua eta jokoa".

Zaldua eta Tabirako

Gertatzen dena gertatzen dela, aurtengo denboraldia oso ona izan da Durangaldeko hiru taldeek igoera fasean sartzea lortu dutelako. Zalduek indartsu hasi zuten liga, baina apurka-apurka indarra galdu du. Tabirako arin geratu zen aukera barik igoera fasean, baina onenen artean sartzeak meritua dauka. ■J.D.

Centro Salmantinoren kontra, luzapenean galdu zuten partidua zein averagea

Dima Golfeko Pitch&Putt torneoaren Agustin Cidek irabazi du

Joan zen asteburuan Otxomaos Pitch&Putt txapelketa jokatu zuten Dima Golfeko golf zelaian. Hiru kategoriatan lehiatu ziren, eta esperientziadunen atalean Agustin Cidek irabazi zuen. Maila bat beharago, Kepa Ikuza nagusitu zen, ezustekoa emanda. Azkenik, handicap altuenaren atalean Angel Muñecasek goratu zuen garaikurra.

Ohi duten moduan, gosari oparo batez hasi zuten eguna eta gero ekin zioten txapelketari. Pitch&Putt modalitateak esperientzia handirik bako jokalariei ere golfean aritzeko aukera eskaintzen die. ■J.D.

Mallabiak maila bat gora egin du, eta Abadiñoako gazteek liga irabazi



Asteburu ona izan zen joandakoa gure taldeentzat. Areto-futboleko Mallabia Bastidak (irudietan) goren mailatik euskal ligara igotzea lortu zuen. Sasikoak, bere aldetik, ohorezko A mailari eutsi zion Muriedadesi irabazita. Futboleko Abadiñoako gazteek liga irabazi eta Traña-Matienako biribilguneko iturrian ospatu zuten. ■J.D.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Atzeko atletik

Buruz buruko txapelketak ez dauka gantxorik. Pilotarien kalitatea handia iden arren, frontoietan sarrera-kopuruak eskasak eta partiduak, oro har, grisak izan dira. Pilotako Champions League legez aurkeztu zuten txapelketak ez ditu aurreikuspenak bete ligaxkan.

Horretarako, hainbat arrazoi daude: buruz buruko arrakastatsua izan zen binakakoa amaitu eta segituan hasi da; zaleei ez zaie atsedean hartzeko tartarik utzi. Gainera, sarrerak -40 euro- garestiegiak izan dira. Azkenik, zaleak galduta egon dira ereduari dago-kionez; hainbatek galdetu dit kalean taldekako sistemaren gainean, eta pilotariak sailkatzeko zituzten aukeren inguruan. Haimar eta Gonzalezen lesioek areago nahastu dute pilotazalea; Julen Retegi eta Iker Arretxe sartuta, jendea galdu egin da sei protagonista zituen B multzoan.

Ez dira gutxi betiko buruz buruko faltan botatzen dutenak, zeinean pilotari gazteenek urteko garaipena lortu zezaketen; lrujak txapela irabazi zuen debut urtean. Dena dela, segururik, enpresengan konfiantza izan beharko dugu. Aspek eta Asegarcek zaleen erantzuna aztertuko dute egoera berbideratzeko asmoz. Laster partidu bakarrerako finalerdiak datoz. Orduan jakingo dugu arazoa formatua ala buruz buruko txapelketa bera den. Pilotazaleak partidu borrokatuak eta ikuskizuna gura ditu, eta buruz buruko honek ez digu hori eskaini, printza txiki batzuk salbu.

Azkenengo lerroak Ibai Zabala zoriontzeko erabili nahi ditut, kontratua berri duela duelako eta denboraldi bikaina osatu duelako. Axier Berasaluze ere gogoan dut; Lemunoren kontrako merezitako garaipenagaz esan dio agur zilarrezko buruz burukoari.

Oizpe txapelketa hasita dago hainbat mailatan

Berrizko Udalaren laguntzagaz antolatu dute eta ekainaren 27an izango dira finalak

Abian da Berrizko Oizpe txapelketa. Aurten txapelketak sasoi batean zuten izena berreskuratzeko ahalegin berezia egingo dute, eta horretarako kalitateko pilotarien errotutako txapelketa interesgarria prestatu dute Berrizko pilota eskolako kideek. Txapelketa benjamin, kimu, haur, kadete eta nagusien mailan jokatu dute. Nagusiek buruz buru jokatu dute, eta gainerakoek binan. Nagusien mailako lehen partiduan Urkijok

22-16 menderatu zuen Loidi, berriztarren arteko deman. Martitzenean beste partidu bi daude: Uriartek Mendoza izango du aurkari eta Olalde Beitia.

Peterren omenez

Bestalde, Jose Mari Agirren "Peter"-en omenezko txapelketa finalerdietara heldu da. Gaur, nagusietan Agirrezabal-Castillo eta Urberuaga-Varela neurtuko dira Durangoko Ezkurdi Jai-Alain (jaialdi osoa agendan).

Borja Abasolo Bizkaiko txapeldun txirrindularitzan

Irabazlearen denbora berean helmugaratu eta 23 urtez azpiko txapela irabazi zuen

Cafés Baqué taldeko Borja Abasolo txirrindulariak 23 urtez azpiko Bizkaiko titulua eskuratu zuen Berriatuan. Garaipen honek, momentu oso onean dagoela berretsi du Abasolok. Abadiñarra bosgarren sartu zen helmugan, irabazlearen denbora berdinduz. Lasterketak Euskaldun torneoaren ere balio zuten, Bizkaikoaz gainera. Eloy

Carralek irabazi zuen Berriatu-kopu proba, elite mailan.

Abasolo 23 urtez azpiko mailako azken denboraldian dago, eta bolada onean dago. Bere taldeak ere, Cafés Baqué, garaipen ugari batzen dihardu azken asteetan. Hain zuzen ere, Daniel Díazek bost garaipen eskuratu ditu eta Juan Sebastian Tamayok bat.

Euskadi, Katalunia, Galizia eta Lituaniako selekzioak aurrez aurre

Nazioen Arteko III. Torneoa jokatuko dute lau selekzioek Landako Kiroldegian; Euskadi Galiziaren kontra lehiatuko da bihar, eta irabaziz gero domekako finalean izango da

EUSKADIKO SELEKZIOA

Joko-antolatzaileak:

- Judith Monasterio (GDKO-Ibaizabal)
- Olatz Perez (Tabirako Baqué)

Hegalekoak

- Oihana Balerdi (UPV)
- Laura Arroyo (UPV)
- Nerea Garmendia (Femení Sant Adriá)
- Ayskel Sañudo (Irlandesas)

Eskolta

- Irune Mayor (GDKO-Ibaizabal)

Pibotak

- Amaia Mendiogarai (Tabirako Baqué)
- Laura Navas (Irlandesas)
- Miren Agirregoikoa (Universitario de Ferrol)

Hegaleko pibotak

- Nerea Moreno (GDKO-Ibaizabal)
- Laura Pardo (Abaroa)

Entrenatzailea

- Luis Ledesma



luz finalera heltzea lortu zuen Euskadiko selekzioak, eta galdu egin zuen Kubaren kontra.

Euskadi, Katalunia eta Galiziako saskibaloiko federazioek emakumezkoen Nazioen Arteko Torneoaren sortu zuten orain hiru urte. Lehenengo aldi biak Katalunian eta Galizian izan dira. Aurten Euskadiko Saskibaloiko Federazioari zegokion antolakuntza eta Torneo Durangoko Landako Erakustazokara ekartzea erabaki dute, Tabirakoren 50. urteurreneko ospakizunekin bat eginez.

Txapelketa larunbatean eta igandean jokatuko dute aipatutako lau selekzioek. Euskadiko hautatzailea Luis Ledesma izango da; zazpi urte daramatza Euskadiko hautatzaile. Hamabi jokalaririk deitu ditu, eta horietako bik Tabirako Baqué jokatu dute aurten: Amaia Mendiogarai pibotak eta Olatz Perez joko antolatzaileak.

Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Katalunia eta Lituania

lehiatuko dira; segidan, 19:15 inguruan, Euskadi eta Galiziaren arteko neurketa hasiko dute. Irabazleak domekan, 12:00etan hasiko den finalerako sailkatuko dira; hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua etzi 10:00etan hasiko dute.

Galiziako selekzioaren izen nagusiak Sara Gómez, Arantza Novo eta Mónica Jorge dira. Lituaniak (aurtengo gonbidatuak) oso selekzio gaztea dakar. Jokalari asko 19 urtez azpiko munduko txapelketan zortzigarren geratu zirenak dira. Jokalari guztiek Lituaniako saskibaloiko ligan jokatzen dute.

Katalunia faborito

Luis Ledesma Katalunia ikusten du Torneoaren irabazteko faborito: "Oraindik ez dute Espainiako selekzioarako hautatuen zerrendarik jakitera eman, eta

Ledesma Euskadiko entrenatzaileak Katalunia ikusten du irabazteko faborito

Tabirakoren 50. urteurrena dela-eta ekarri dute Torneo Durangora

susmoa dut jokalaririk onenekin etorriko direla. Horrela, eurak dira faborito". Torneoaren lehenengo aldia Katalunian irabazi zuen. Euskadik kanporatu zituen finalerdietan, ezusteko handia emanda. Finalean, ordea, ezin izan zioten Kubari irabazi.

Zazpi garaipen

Emakumezkoen Euskadiko selekzioak 30 urteko historia du. 1980an jokatu zuen lehenengo, eta 82-85 galdu zuen Mexikoren kontra. Ondorengo 20 urteetan partidua bakarrik jokatu zuen, 1993an hain zuzen, eta galdu egin zuen orduko Bosnia Herzegovinaren kontra. 2000. urtetik hona 16 partidua jokatu eta zazpi irabazi dituzte; Australia, Irlanda, Argelia, Japon, Gaztela-Leon, Portugal eta Kataluniaren kontrakoak izan dira garaipenak. ■J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Galdakao

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

ARETO FUTBOLA

GOREN MAILA

Mallabia Bastida - Alufermar

Domekan, 17:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Lagun - Pozgarri

Zapatuan, 18:00etan,

Berrizburun

Presion Break - Abadiñoko Gaztetxe

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburu kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

(txapelketa erabakitzeko)

Mendibeltz - Aurrera Beti

Zapatuan, 16:45ean,

Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Durangoko Kulturala - Jado Erandio

Zapatuan, 15:30ean,

Landako kiroldegian

SASKIBALOA

LEHENENGO ERREGIONALA

(igoera fasea)

Anbotopeko - Tabirako Baqué

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA

'PETER'EN OROIMENEZKO

TXAPELKETA (finalerdia)

Gazteak:

- Lejarzegi - Zilaurren / Iturbe - Atutxa

Nagusiak:

- Agirrezabal - Castillo / Urberuaga - Varela

Barikuan, 19:30ean,

Ezkurdiko frontoian

BIHARKO IZARRAK

TXAPELKETA

- Nabarte - Peñas / Azpuri - Merino

- Larrañaga - Aldape / Elezkano - Zubiri

Domekan, 17:00etan,

Mallabiko pilotalekuan

- Gorka - Landaburu / Ezkurdia - Galarraga

- Yoldi - Olalde / Mendizabal - Huntoria

Eguenean, 21:30ean,

Mallabiko pilotalekuan

OIZPE TXAPELKETA

- Uriarte / Mendoza

- Beitia / Olalde

Asteartean 21:00etan,

Berrizko pilotalekuan

- Alberdi / Urkijo

- Albizuri II / Jalo

Ostegunean, 21:00etan



- Luis Ledesma
- Euskadiko selekzioaren entrenatzailea

luzko taldeagaz alderatuta, aldaketa asko dago taldean?

Ez, gutxi gorabehera talde bera izango da. Irune Mayor, Olatz Perez eta Laura Navas ez ziren iaz egon, baina aurretik Euskadiko selekzioaren jokatutakoak dira. Sekula etorri bako jokalaririk bakarrik daude: Nerea Garmendia eta Laura Arroyo.

Tartean Tabirakoko jokalaririk daude: Amaia Mendiogarai eta Olatz Perez.

Amaia gure kapitain handia da. Kantxa barruan asko ematen digu, baina handik

kanpora are gehiago ematen digula uste dut. Olatz orain urte bi Galizian jokatu zuen selekzioaren partaide izan zen. Taldeari asko lagunduko dio.

Lituaniak talde gaztea eta indartsua dakar.

Bai, baina jokalaririk onenekin badator Katalunia da faborito. Goi mailako jokalaririk dituzte, kalitate eta esperientzia handikoak. Lituaniak ere talde ona du, dudarik barik.

Galiziaren kontra jokatuko duzue finalerdietan.

Gure errezeta lana da. Kolo-

reak asko sentitzen dituen taldea da, eta barruan daukaten guztia emango dute.

Zaleei Landakora joateko gonbita egin beharko diegu.

Ez dago beharrik. Durangoko zalegoak ez du sekula hutsik egiten. Torneo hau herri bakoarekin finkatu behar balitz, herririk egokiena Durango izango litzateke.

Zu gustura zaude entrenatzaile lanetan?

Taldean giro ona nagusitzen da, eta pozik nago. Horrela ibiltzeko gustua ematen du.

«Torneoa herri batean finkatu behar balitz, herri hori Durango litzateke»

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Virginia Ansorena
- Estetika dauka Durango

Gorputza moldeatu

Virginia Ansorena Estetikan udarako prestatu eta gorputza moldeatzeko linfa-drainatze bibrazio plataformagaz batera egitea proposatzen digute.

Zertan datza linfa-drainatzea?
Lehenengo linfa-drainatzaileak masaje baten bitartez gorputzeko likidoak mugiarazten ditu. Oso aproposa da gorputza moldeatu eta sabelaldearen eta hanken goialdean bolumena bajatzeko. Zelulitisa duten pertsonentzat, aurre-menopausia edo menopausia duten emakumeentzat gomendagarria da.

Eta bibrazio plataformak zer onura ditu?
Plataforma honetan 10 minutu egotea ordu beteko kirola egitearen parekoa da. Muskuluak indartu egiten ditu, muskuluen biguntasuna ekidin eta zirkulazioa aktibatzen du.

Tratamentua zelan egin behar da?
Lehenengo hamabost egunetan, astean birritan egin behar da. Gero, tratamendua astean behin egin behar da, hamar edo hamabost sesio osatu arte.

Emaitzak noiz nabaritzen dira...
Tratamenduaren bost edo seigarren sesioan emaitzak nabaritzen dira. Dietaren osagarria da linfa-drainatze eta bibrazio plataforma. Dieta egin barik ere onurak nabaritzen dira tratamendua egin eta geroago.



ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilara
- Estentsioak
- Unisex
- Solarium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik
ileapaindegia

asteleheneik asteazkenera
10:00-21:00

osteguna eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia **Amala** Dietetika

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIO-beroa eta epela •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



anboto.iragarki**laburrak**.com



etxea saldu edo alokatu nahi baduzu

ostalaritzan lan bila nabil
non aurkitu baina?

mendiak zurituta daude jada, erabiltzen
ez duzun materiala duzu etxean?

liburuak diskoen truke hartu nahi
dituen norbaiten bila nabil

sofa berri duzu eta zaharrarekin
ez dakizu zer egin?

haurra koskortu zaizu eta dagoeneko
kotxea ez duzu behar?

zergatik joan bakarrik lantokira
autoa konpartitu dezakezunean?



Interneten

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 3 hilabetez
egongo dira zuen iragarkiak


Paperean

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 6 astez
egongo dira zuen iragarkiak

Kategoria berriak
Sare sozialetara loturak
Abisuak posta elektroniko eta SMS bidez
Bilatzaile garatuak
...

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Uztartzera behartu	Zelatan	Atomo kargadunak
	Zalantza	Hedatu, zabaldu	
	Arto irinezko opil		
	Nahiak		
Zatitzera behartu	* Durangoko jauregia		
Beldur handia	Bizkaiko		
Animalia izugarriak			
Nafarroako herria			
			Bikoitza
Landare mota			Boroa
Ikasarazi			Larri
Atx! otx!	Zareten horiek		
Ezkontza	Gabezia		
			Rutenioa
			Diru, bokalik gabe
Joan den urtea			Noka, du
Bizkaieraz, daratulia			Tona

SUDOKU >

1

6	2			7
4			2 7	1 8
	3	6	9	
3		9		
7	5		1	3
	7		6 2	4
2	9		6 8	1
5				4 9
		9 3	8	5

2

		1		
			7 6	
9			3	1
3				9 7
2		9		5
9		4		
			8	4 2
7				5
4			2 3	9

4	1	8	5	8	1	4
3	7	2	6	9	4	8
5	6	7	8	1	4	2
6	5	7	8	1	4	2
8	6	7	8	1	4	2
2	8	9	6	3	7	1
1	3	4	8	5	2	9
7	9	5	2	4	8	3
8	2	3	1	7	6	5
6	4	1	5	9	7	8

2

1	4	7	9	3	8	2	6	5
3	2	6	4	5	6	8	7	1
6	5	1	7	2	3	4	9	
2	7	4	5	6	1	9	3	8
8	3	6	2	9	4	5	1	7
7	8	3	6	2	9	4	5	1
4	6	1	9	7	4	5	2	
6	1	2	8	4	5	7	9	3

3

V	O	R	A	T	V	A	L
N	I	D	I	Z	I	A	I
U	R	E	I	E	T	Z	E
K	U	Z	A	I	A	I	K
S	I	R	A	K	A	T	S
B	A	R	A	V	A	K	A
N	A	I	O	Z	I	Z	I
K	E	R	E	A	K	T	I
A	R	I	A	B	O	R	R
I	A	R	A	I	G	A	R
L	O	A	L	O	T	A	L
E	Z	B	A	I	Z	I	A
T	U	T	I	A	I	Z	I

HOROSKOPOA >

Aries marxoak 21 - apirilak 20
Bikoteagaz momentu bereziak biziko dituzu aste honetan. Bikoterik ez daukazuenok, berriz, topatzeko momentu egokia izan dezakezue.

Taurus apirilak 21 - maiatzak 20
Aspaldi ikusi bako lagunekin hartu-eman handiagoa izango duzu, berezia den baten bat tarteko.

Gemini maiatzak 21 - ekainak 20
Amets egiten inork ez zaitu irabazten. Ilusio handia duzu eta horrek gauzak egitera bultzatzen zaitu. Zortea izango duzu.

Cancer ekainak 21 - uztailak 20
Zure bidea eta bide lagunak aukeratzeko momentu egokia. Gustura ez bazaude, benetan gertatzen zaizuna esateko ordua.

Leo uztailak 21 - abuztuak 23
Lagunekin tentsio momentuak biziko dituzu aste honetan. Motibo barik ez haserretu; egoera aztertu lehenengo.

Virgo abuztuak 24 - irailak 23
Aspaldian nahiko nekatuta zabilta, baina azken esprinta besterik ez da geratzen. Indarra ateratzeko momentua da.

Libra irailak 24 - urriak 23
Azken aspaldian beste norabait joateko ideia egi bihurtu daiteke laster. Abentura bila zabilta, zeezeren faltan zaude.

Scorpius urriak 24 - azaroak 23
Zure burua entzutea beharrezkoa izango da aste honetan. Zuk beste inork ezin du zuretzat egokiena aukeratu.

Sagittarius azaroak 24 - abenduak 23
Aste honetan pertsona interesgarriren bat ezagutu dezakezu, eta bere bizitza filosofiak asko lagunduko dizu zuri ere.


Capricornus abenduak 24 - urtarrilak 20
Aste honetan belarriak zabalik eduki, asko ikasiko duzu-eta. Inspirazio eta motibazio handiko astea izango duzu.

Aquarius urtarrilak 21 - otsailak 18
Pertsona berezi hori ezagutzeko momentu egokia. Aldendu urduritasunak eta kezak. Momentua bizitzeko ordua duzu.

Piscis otsailak 19 - martxoak 20
Sentimenduak nahastuta dituzu aspaldian. Aste honetan garrantzitsua zer den konturatzeko zara.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta




Enarak bost urte egingo ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta musu asko, familia osoaren partez. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna!



Ane Zabalak maiatzaren 19an sei urte egin ditu. Zorionak eta patxo pilo bat, etxeko guztion partez, batez ere, Loreren partez.



Zorionak, **Ihintza!** Zure urteguna ondo-ondo pasatu eta musu handi bat, Manex, Maddi, Izaro, Lur eta Jonen partez. Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak Ihintza....



Gadea Azula Basterrebeak maiatzaren 17an bi urte egin zituen. Ondo pasatu eta musu haundi-haundi bat, etxeko guztien partez. Zorionak pitxin!



Zorionak nire osaba **Eduri**, maiatzaren 22an urteak egingo dituelako. Ondo pasa eguna eta ia noiz ospatzen dugun. Musu handi bat Miriam eta familiaren partez.



Zorionak, **Amaia Ugalde!** Maiatzaren 24an zure urtebetetze eguna da. Mende laurdenera heldu zara? Zorionak, familia guztiaren partez.



Araitx Arrizabalaga Zuazo. Zorionak zure lehenengo urtebetetze egunean, zure lehengusinen eta nebaren partez, Olatz, Irati, Mikel eta Izar.




Urte batzuk pasa dira argazki horretatik, baina berdin-berdin jarraitzen duzu, irribarre polit horregaz. Zorionak, **Amaia**, 22. urteurrenean guraso eta anai-arreben partez! Musu pila!



Aritzak 32 urte egin ditu maiatzaren 18an. Zorionak eta musu handi bat, bereziki argazkian agertzen den alaba Naroaren partez. Zorionak, amatxo!

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor

Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango

tf. 619 17 61 53

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA PSIKOLOGO KLINIKOA

PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Urneak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

"Liburutegian behar egitea lanpara magiko bat edukitzea modukoa da"

Elorrioko Liburutegi berria oso pozik dago Inazio Zubia. Zaharreko oroitzapenak ere asko ditu; 20 urte egin zituen han



Juanito Gallastegi
Abadea

Erakundeagaz lotuta?

Ez ete da orain arte gehienontzat ia ezezaguna izan "pederastia" berba? Umeei eginda-ko sexu-indarkeria dela esango geunke hitz horrek adierazten dauena.

Hiltzea-edo izan ezik, gauza gitxi hori baino larriagoak. Umearen nortasunaren, askatasunaren, haziera sikologikoaren, berezko garapen osasuntsuaren... aurkako errukaragarria! Beraz, gogor epaitu, zuzendu, ordaindu, zigortu beharrekoa. Eta, zer esanik be ez, umeen hezkuntza arloan arduradunak eurak direnean kalte hori egiten dabena.

Eta zenbat holako jarri diren agirian azken aldi honetan! Zenbat abade, fraile, kristau-hezitzaile! Zelako erraz jarri jakin askori berba itxusi hori Elizagaz lotzea!

Txarto be txarto dagoena aitortu egin behar da, eta ordaindu. Egia egia beti!

Baina bidezkoa ete da berba itsusi hori familiagaz, medikuntzagaz, kirol-hezkuntzagaz, Unescogaz, karateagaz eta hainbeste eta hainbeste erakuntzagaz lotzea? Eta kristau-hezkuntzagaz bai? Eta gehiago oraindino: Elizagaz beragaz, bere osotasunean hartuta, be bai?

Nik, behintzat, begirune osoa izan behar deuset familia guztietako kideei, mediku guztiei, kirol-hezitzaile guztiei, Unescon lan egiten dabena guztiei... bestela, ez nintzateke zuzena izango, lotsabako bat baino.

Eta estatistikek dinoenez, ehuneko honenbesteko askoz be handiagoak dira pederastian holako eta beste erakunde askokoak, kristau-heziketan diharduenenak baino.

Pederastia den hondamendi horren aurka, jo eta ke! Baina gauzak bere lekuan jarrita.

Gaztetxoak komiki bila, gazteak azterketa garaian, orain geroago eta jende gehiago ordenagailuetan... jende asko ezagutu du Inazio Zubia Elorrioko liburutegian. 23 urte daramatza bertan beharrean. Hogei liburutegi zaharrean, eta hiru berria. Ez dira gutxi.

Asko aldatu dira gauzak 23 urtetan?

Hasieran arratsaldez bakarrik egoten nintzen beharrean, baina orduan ere mugimendua egoten zen.
P l a z a

ondoan egonda, liburutegi zaharrena jende asko gerturatzen zen. Lehenago entziklopediak, erreferentzia obrak... erabiltzen zituzten ikasleek. Orain ordenagailuetan egiten dute dena, entziklopediak oso gutxi erabiltzen dituzte. Ordenagailuekin beste arrisku batzuk ikusten ditut. Erraza da hor kopiatu eta pegatu egitea.

Irakurzaletasunari dagokionez, aldaketarik gertatu da?

Irakurketa lehiaketak egiten gabiltza 16 urtean, eta datuak ikusita aldaketak igartzen dira.

Irakurle hasiberriek geroago eta gehiago irakurtzen

dute, adibidez. Erraztasun handiagoa daukate, eta euren parte hartzen dute gusturen. Lehiaketagaz oso gustura nago, umeei irakurtzen ohitzeko modua delako.

Zergatik uste duzu jendeari ez zaiola irakurtzea gustatzen?

Nik uste dut neskei mutilei baino gehiago gustatzen zaiela irakurtzea. Gazteek orain aukera gehiago dituzte: telebista, ordenagailua, musika... Lehenago ez zegoen horrelakorik. Eta irakurtzea kostatu egiten da; erakargarriagoa eta errazagoa da telebista ikustea. Hori bai, liburuak gustatuz gero beste mundu baten sartzen gara; ez dago irakurtzea lako gauza aberasgarririk.

Igartzen da gustatzen zaizula.

Bai, asko. Eta denetik. Daukadan gogoaren arabera, nobela beltza, abentura nobelak, komikiak... irakurtzea gustatzen zait. Dostoievski, Julio Verne... edozein liburu.

Liburutegian hasi aurretik zenuen zaletasuna edo lanbi-deak lagundu dizu?

10 urte nituenetik gustatzen zait irakurtzea. 10 urteagaz, gaixorik ohean nengoela, nire osabak anaia eta bioi Julio Vernerren bilduma osoa ekarri zigun. Hasieran marrazkiak ikusten nituen bakarrik, baina gero, asko gustatu zitzaidan, eta orduan hartu nuen ohitura. Liburutegira ere joaten nintzen. Gaztaroan gutxitxoago, eta gero berriro hasi nintzen. Eta libu-

rutegian nagoenetik... hau lanpara magikoa modukoa da! Denetik dago, eta liburuez gainera, asko gustatzen zait denetariko aldizkari eta egunkariak irakurtzea.

Jende asko etorriko zaizu aholku eske.

Batzuek esaten didate: "Emaidazu gustatuko zaidan liburu bat". Nik brometan esaten diet: "Ea, jesarri eta psikologiari buruzko galdera batzuk egingo dizkizut!" Ezin dut jakin zer gustatuko zaion nori! Jendeak pentsatzen du liburu guztiak dauzkadala irakurrita, baina erreferentzia batzuk baino ez daukat! Gero, batzuetan boomak egoten dira, eta jende asko etortzen da liburu bategatik galdetza. Larsonen *Millenium*ekin hori pasatu da; liburuak hartzeko zerrenda luzeak izan ditugu. Geroago ere irakurtzeko astia izango zutela esaten nien nik.

Orain momentuan bazabiltza zerbaiz irakurtzen?

Bai, *Los hijos de la vid* irakurtzen nabil. Historia liburu bat da. Errioxan ardoa zelan egiten hasi ziren kontatzen du, egon ziren plagak eta... Oso ondo dago.

Zenbat bider esan behar izaten duzu isilik egoteko?

Lehenago, liburutegi zaharrean, gehiago. Batzuk zalaparta itzelak eragiten zituzten. Gogoratzen dut behin batek zoratu ninduela, ez nuen ikusten eta mahai azpian zegoen ezkutatuta!

Anekdotak ugari izango duzu...

Liburutegi zaharrekoak hainbat daukat. Gogoratzen dut behin atea ezin zabaldu egon ginela arratoi handi bat zegoelako traban... Beste behin saguentzako tranpak jarri genituen, eta liburuekin bidea egin nien tranpetan jausteko.

Inazio Zubia

Elorriarra da

Bertako liburuzaina



maristak
ikastetxea · Durango

Oraindik
aurre-
matrikulatu
barik?

ATE IREKIAK
Maiatzak, 26.- 18:00-20:00
Batxilergoak
eta Zikloak

informazio gehiago

www.maristak.com • 94 681 00 58

Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia

san-jose@maristak.com

Euskadi

bat

HETEL